

DATORRENA

Traktoreen burrunba artean, alea lastotik bereiztea hobe **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

ISRAEL, KAZETARIEN KARTZELARI:

Prentsa askatasunaren kontrako akuilu izan da Gazako sarraskia **> 4**

2024ko otsailaren 10a | XVIII. urtea • 863. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GORKA CINTERO, FIKZIOZKO BALENCIAGARI JOSTEN ERAKUTSI DIONA

JOSTUN DONOSTIARRAK LAN OSO BEREZIA JOSI DU: "CRISTOBAL BALENCIAGA" SERIEAN GETARIAKO SORTZAILEA GORPUZTU DUEN ALBERTO SAN JUAN AKTOREARENTZAT COACH LANAK EGIN DITU. DETEALEZ ETA ZORROTZ ARITU DA, BALENCIAGA JOSTUNAREN PLANTAK EGITEAK PUNTADA OSO ZEHATZAK EXIJITZEN BAITITU. **> 27** Gorka RUBIO | FOKU



**Israelek kazetarien aurka ere
zabaldu du Gazako sarraskia** 04

**«Hondoratze isilak», dolua egiteko
aukerarik ere ematen ez duen
tragedia etengabea** 07

**Euskal mago gazteak gogotsu
daude lilura sortzen jarraitzeko** 12

**Analisia: Zer ikusten da Talaia
Feministatik?** 16

**«Langile Memoria», desagertu ez
baina eraldatu egin den klase bati
buruzko saiakera bisuala** 22

In fraganti: Gorka Cintero 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Traktoreen burrunba artean
alea lastotik bereiziz
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:**
Loturak
- 11 **Iñaki Altuna:** Zer ote du
oraintxe Urkulluk buruan?
- 20 **Fernando Trebol Unzué:**
Garunaren elikatze kontzientea
- 21 **Xabier Izaga:** Normaltasunaren
alde, denek ala, hobe, inork ez
- 25 **Amaia Ballesteros**
- 26 **Miren Azkarate Badiola:**
Mafalda, oraindik ez
- 26 **Amagoia Mujika Telleria:**
Zertarako ikusi eta entzun nahi
da biktima?
- 30 **Miren Bermejo Llopis:** Alferrik
ez galtzeko app-ak:
berreskuratu janaria klik
batekin!



{ datorrena } **Maite UBIRIA BEAUMONT**

Traktoreen burrunba artean, alea lastotik bereiztea hobe

Testu inguruak ez badu dena azaltzen, gidaliburua eskaini dezake negu honetan berpiztu den lehen sektorearen mobilizazioa ulertzeko. Agian, izenburuak emandako aholkuari jarraituz, mobilizazio «mainstream» eta sakoneko arrangura artean lehenik banaketa behar genuke egin. Alemania eta Herbehereetatik hauspoturiko harresiari eutsi zioten, ñabarduraz ñabardura, FNSEA eta Laborari Gazteak sindikatuen joko-eremuan diren nekazaritza ustategien jabeek Hexagonoan.

Europar Hauteskundeak iraganen dira heldu den ekainaren 9an eta, nahi ala nahi ez, hitzorduak aukera paregabea eskaintzen du Bruselaren itzalpean garaturiko politiken gainean aldarrikapenak egiteko.

Frantziar sindikatu nagusiek beraiek Nekazaritza Politika Komunaren, PAC delakoaren, kudeatzaile nagusiak izan dira azkeneko hamarkadatan. Gobernu zein estatu buruen mintzakide izan dira, dirulaguntzen sistema eratzeko orduan eta elikagaien balio-katearen zaintza hartzen duen Egalim legearen bertsio ezberdinak aitzinera eramateko orduan.

Gobernu eta nekazarien sindikatuen arteko harremana inoiz ez da eten, eta horren lekuko, Matignonera heldu berri den lehen ministroak jakinarazi gabeko bilerak antolatu izana, berehala, haien buruzagiekin Hexagonoko errepide nagusiak blokeaturik zeuden bitartean. Mandatari berriak ez du, antza, neholako egokitzapen eperik bete behar izan, kode zaharrak berreskuratuz, harremanak norabide onean ezartzeko.

Batik bat trantsizio ekologikoari egotzitako «zamak arintzea» eta mozkinak ekoizteko -eta PACen laguntzak jasotzeko- «arauak sinplifikatzea». Horiek izan dira errepidea hartu duen nekazaritza protesta «mainstream» horrek azaleraturiko xede nagusiak.

Frantziar Gobernuak ez du eztabaida markorik auzian eman, eta ez du protesta bertan behera uzteko Poliziaren indarra baliatu. Alta, belusezko politika aitzineratu du, blokeatze operazioari neholako kalte-ordainik egotzi gabe. Beste herrialdeetako kamioen aurkako erasoan aurrean, agintariak eta jite bereko borroka moldeak sarri arbuiatzen dituzten hedabideak, mutu; saltoki handietan sartu eta apalak husteko operazioen gainean, deus esatekorik ez.

Traktoreen burrunba artean, frantziar Gobernuak bide zuzenetik atera, eta norberak bere burua salba dezan -bihar goizera arte, bederen- bidezidorra hautatu du. Hala, klimaren aldeko erronka iparrorratz gisa hartuta, nekazariak, haien etorkizunaren jabe izan daitezkeen baliabideak aurrekusi orde, atzera egiteko

Laborariei haien lanaz bizitzeko diru-sarrerak bermatzera jo zezakeen Attalek, baina errazagoa egin zaio lurra eta gizakien bizitzak bigarren lerroan ezartzea

errezetak erregosi dituzte. Burrunba gelditu da, baina biharko etsipenaren kiratsa dario «the end» honi.

Erregaien gaineko zergak eta pestizidak erabiltzeko trabak apalduz salbatuko du auzia, lehenagotik ere klimaren aldeko engaiamenduak ez betetzeagatik epaitegietan kondenatua izan den frantses Estatuak. Gisa berean, esku batetik merkataritza askeko akordioak izenpetzen dituzten europar agintariak beste eskua baliatuko dute klimaren auzia bigarren lerroan jartzeko. Hala, «zentzu oneko» politiken bidez, finean, negazionisten lokatzean sartuz. Nehork ezin du ukatu Euskal Herrian «kilometro 0»-ko protesta altxatzeko arrazoiak badirela, baina alea lastotik bereizita. •

ISRAEL, KAZETARIEN KARTZELARI

Milaka biktima palestinar eragiteaz gain, prentsa askatasunaren aurkako akuilu izan da Gazako sarraskia

Azaroaren 19an, Mosab Abu Toha poeta palestinarra atxilotu zuten Israelgo segurtasun indarrek, familiarekin Gaza hegoaldera ihes eginen ari zela, The New Yorker, CNN eta Al Jazeera komunikabideen arabera. «Salbu nago, baina min handia daukat sudurrean, hortzetan... Israelgo armadako kideek emandako jipoien ondoren», argitaratu zuen Abu Tohak Facebooken azaroaren 24an, aske geratu ondoren. Israelgo Defentsa Indarrek ohar batean adierazi zuten, Abu Toha itaundu egin zuten «inteligentzia zerbitzuek Gazan hainbat zibilen eta erakunde terroristen arteko interakzioak» detektatu ondoren.

Egun bat lehenago, azaroaren 18an, Ibrahim al-Zouhairy kazetari palestinarra, Al-Hadath albiste webguneko kolaboratzailea, atxilotu zuen Israelgo Armadak Burham herrian, Ramallah iparraldean, Zisjordanian, Kazetari Palestinarren Sindikatuaren arabera. Al-Zouhairyren arreba Hala al-Zouhairy kazetariaren arabera, soldaduek eraso egin eta familia hiltzarekin mehatxatu zuten. Gainera, egozten dizkioten karguen inguruan berrikerik ez zuela adierazi du, eta bere abokatuek ez dutela atxilotetaren arrazoiari buruzko informaziorik.

Urriaren 7tik Israelek atxilotu dituen 25 kazetarietatik bi baino ez dira Abu Toha eta Al-Zouhairy, Kazetariak Babesteko Batzordearen (CPJ) espetxe eroldaren arabera. New Yorkeko entitateak mundu mailako kazetarien bortxaketak doku-

mentatzen ditu, eta, Palestinan, mehatxu, eraso, ziber-eraso eta gaitzespen ugari dokumentatu ditu azkenaldian. Otsailaren 7an, CPJren erregistroek erakusten zuten kazetari horietako 19k espetxean jarraitzen zutela. Hala ere, Palestinako Kazetarien Sindikatuaren arabera, baliteke guztira hirurogei kazetari palestinar izatea Israelgo kartzeletan.

Atxiloteta horiekin guztiekin, CPJren arabera, Israel munduko kazetari kartzelari nagusietako bat bihurtu da. Estatu sionista behin baino gehiagotan agertu da errola horretan, baina urriaren 7tik kazetari palestinarren atxilotetarik basatieta gauzatu du, CPJ 1992an atxilotetak dokumentatzen hasi zenetik. Egun, Israel preso gehien dituzten herrialdeen zerrendan dago; zehazki, seigarren postuan –Iranekin berdinduta–, Txina, Myanmar, Bielorrusia, Errusia eta Vietnamen atzetik, hurrenez hurren.

Israel sailkapen horretan sartzea Zisjordia okupatuan bere Ejertzitoak aplikatutako “atxiloteta administratiboak” bultzatu du. Espetxeratzeko neurri horrekin, komandante militar batek kargurik gabeko edonor atxilotu dezake, eta presoaren atxiloaldia mugarik gabe luzatu, etorkizunean delituri egin ez dezan. Neurri eztabaidagarri horren erabilera areagotu da genozidioa hasi zenetik, eta milaka palestinar atxilotu ditu Israelek.

Kazetari gehienak, beraz, administrazio-atxilotetan daude, eta prozedura horien izaera itxiak zaildu egin die CPJko ikertzaileei kazetariak aurre egin behar dieten aku-

PRENTSA ASKATASUNA / Ibai AZPARREN

Kazetariak Babesteko Batzordearen (CPJ) espetxe eroldaren arabera, Israel preso gehien dituzten herrialdeen zerrendan dago; zehazki, seigarren postuan. 25 kazetari atxilotu ditu Estatu sionistak, eta Palestinako Kazetarien Sindikatuak dio guztira 60 kazetari daudela Israelgo espetxeetan.

sazioak ezagutzea, baina hainbat familiak jakinarazi dute uste zutela kazetariak sare sozialetan argitaratzeagatik kartzelatu zituztela.

Ildo beretik doa Shuruq Asad, Palestinako Kazetarien Sindikatuko bozeramailea, eta, Efe agentziari adierazi dionez, «kazetari asko atxilotu dituzte Gazari buruz sare sozialetan argitaratu zituzten edukiengana-

Wael al Dadu kazetariak familia osoa galdu zuen israeldarren eraso baten ondorioz.
Bashar TALEB / EUROPA PRESS

rik». Gainera, espetxeko «basakeria» salatu du Asadek. «Oso modu basatian tratatzen dituzte, galdeketa oso gogorak dira», gaineratu du, aske utzi zituzten atxilotuek –batez ere Gazakoek– horren testigantza eman dutela azaltzean.

«Kazetari batek esan zuen Israelgo Armadak denbora luzez jipoitu zuela, arropa kendu eta kanpora ateratzen zutela, iraindu egiten zutela, ia janaririk edo urik ez zuela eta inkomunikatuta zegoela, inorekin harremanetan jartzeko gaitasunik gabe eta bere familiak haren berri izan gabe», azaldu du Asadek sindikatuak dokumentatutako kasu bati buruz.

PRENTSA ASKATASUNAREN FALTA

CPJren arabera, urriaren 7tik aurrera eskualde osoko kazetariak eta komunikabideek



«etsaitasunezko ingurune bati aurre egin behar izan diote, eta, horren ondorioz, tokian bertan informazioa ematea oso arriskutsua izan da». Izan ere, Gazako iparraldean, hango hirian barne, dozenaka kazetari baino ez dira geratzen. «Ahal-egin handia egiten dugu jantaria emateko, eta internet edo diru pixka bat izan dezaten»,

Zisjordania okupatuan Israelgo Ejertzitoak “atxiloketa administratiboak” burutu ditu. Komandante militar batek kargurik gabeko edonor atxilotu dezake neurri horrekin

Palestinako Kazetarien Sindikatuaren aburuz, «kazetari asko atxilotu dituzte Gazari buruz sare sozialetan argitaratu zituzten edukiengatik»



Hassouna Sleem eta Sary Mansour kazetarien gorpuak Gazako ospitale baten aurrean. AI HWAJRE / EUROPA PRESS

ISRAELEK KAZETARITZA ISILDU NAHI DU GAZAN: «LEHEN HELBURUA DIRA»

Espetxeratzeaz gain, Israelgo armadak etengabe hil ditu kazetariak urriaren 7tik. Zehazki, Gazako kazetarien %10 hil dira hiru hilabete eta erdiko erasoaldian Shuruq Asad Palestinako Kazetarien Sindikatuko bozeramaileak Efe albiste agentziari egindako elkarrizketa batean emandako datuen arabera.

Kazetarien eta hedabideetako langileen artean, hildakoak gutxienez 113 dira. Sindikatuak 3.600 kazetari palestinar biltzen ditu, 2.400 Zisjordanian eta 1.200 Gazan.

Baina zifrak aldatu egiten dira iturriaren arabera. CPJren aurretiazko ikerketen arabera, Israeliek gutxienez 85 kazetari hil ditu urriaren 7tik. Eta Gazako gobernuko komunikabideen bulegoaren arabera, gutxienez 100 kazetari hil dira Ejertzito sionistaren ofentsiban. Hala eta guztiz ere, inoiz izan den gatazka batean hildako berriemaileen kopururik handiena da.

«Lehen helburua dira, ez baitute gertatzen ari denaren berri ematerik nahi, eta izua eta beldurra zabaldu nahi dute kazetarien artean», adierazi zuen Asadek. Eta Gazako kazetari askok «hil edo eraso egingo zietela zioten mehatxuak jaso zituztela» salatu zuen.

Baina kazetariez gain, Israelen erasoek 50 komunikabideen bulego baino gehiago suntsitu dituzte Gazan, eta ehunka kazetari palestinarrek eta haien familiek hegoaldera joan behar izan dute. Beste batzuek ez dute hainbeste zorte izan. Wael al Dadú Al Jaazera Qatarreko telebista kateko bulegoko buruaren kasua da. Gazako genozidioaren berri ematen duten kazetari palestinarren artean aurpegi ikusgarrienetako bat bihurtu da. Izan ere, Al Daduk emaztea, bi seme-alaba eta bilobetako bat galdu zituen urrian Israelgo Armadak Nuseirateko errefuxiatu-esparruaren aurka

egindako eraso batean, Gaza erdialdean, eta orain ama galdu du. Kazetariak, beste askok bezala, Gazatik alde egin behar izan du.

Israeliek kazetari palestinarren aurka egindako erasoaldiaren aurrean, Kazetarien Nazioarteko Federazioak (FIP) iragarri du nazioarteko auzitegietan salatuko dituela Israelgo politikariak eta armadako komandanteak, erakundeak Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroari eta Yoav Gallant Defentsa ministroari bidalitako gutun batean adierazi zuenez. Gauza bera egingo du Palestinako Kazetarien Sindikatuak.

Gutunean, FIPek Nazio Batuen Nazioarteko Justizia Gortearen (CIJ) epaia betetzeko eskatu zien, honek Israeli agindu baitzion bere militarrek ez dezatela hautsi Gazan Genozidioari buruzko Konbentzioa, eta zibilak hiltzeari uzteko ere eskatu zion.





ziurtatu du Zisjordanian egoitza duen sindikatuak.

Gainera, sindikatuak salaketak prestatzen ari dira Nazioarteko Zigor Auzitegiaren (CPI) aurrean aurkezteko eta Israelgo Gazan «kazetarien hilketa sistematikoa» leporatzeko. Ofentsiba urriaren 7tik areagotu den arren, Asadek dio jazarpena urrunetik datorrela eta Israelgo Ejertzitoak Palestinako lurraldean duen jarduera-eredua dela.

Ildo horretan, Israelek 2023an preso hartutako kazetarien zerrendan duen presentziaren froga da, Joei Ginsberg CPJko zuzendari exekutiboaren arabera, «Israelek kazetari palestinarrek isilarazteko metodo drakoniarrak aplikatzen dituen bitartean, prentsa askatasuna bezalako oinarrizko arau demokratiko bat desagertzzen ari dela».

Guztira, CPJk preso dauden 320 kazetari dokumentatu zituen 2023ko abenduaren lean argitaratutako erroldan. Zifra

Lerro hauen gainean, kazetari palestinarrek Israelgo Armadak Gazan egindako sarraski baten berri ematen. Alboko irudian, kazetari bat Israelgo aire erasoek Deir al Balahen, Gazako erdialdean, palestinarren etxeetan eragindako kalte eta suntsiketen berri ematen. Atia DARWISH/EUROPA PRESS
Yousef MOHAMMED/EUROPA PRESS

hori entitateak 1992an errolda hasi zuenetik erregistratutako bigarren handiena da, «autoritarismo errotuaren eta ahots independenteak itotzeko erabakia hartu duten gobernuen bortizkeriaren barometro kezagarria». Mugarik Gabeko Kazetarien arabera, berriz, 779 kazetari espetxeratu dituzte aurtun munduan, eta 547 kartzelan daude gaur egun. Erakundeak, gainera, gero eta ohikoagoa den informazioaren arloko emakume profesionalen errepresioa jasotzen du.

CPJren ikerketara itzuliz, honen erakusten du erroldan

agertzen diren erdiak baino gehiagok (168k) albiste faltsuei eta Estatuaren aurkako akusazioei egin behar dietela aurre, hala nola «terrorismoa» bezalako akusazioei.

Hala, 66 kasutan, atxilotuei ez diete oraindik jakinarazi zer kargu leporatzen dizkieten. Askotan, baldintza krudelei egin behar izaten diete aurre, berme prozesalak desagertzen dira agintariek kazetarien atxilotura luzatzen dutenean akusazioaren eta epaiketaren aurretik, eta kazetarien abokatuak ere errepresaliei aurre egin behar diete.

Mundu mailan, 320 kazetari zeuden kartzelan 2023ko abenduaren lean, CPJk estatistika hori biltzen hasi zenetik dokumentatu duen bigarren kopururik handiena

Asia da espetxeratutako kazetari kopuru handiena duen lurraldea. Txina, Myanmar eta Vietnamez gain, Indian, Afganistanen eta Filipinetan ere espetxeratu dituzte

Erakundearen arabera, Asia da oraindik ere espetxeratutako kazetari kopuru handiena duen lurraldea. Lehen postuetan dauden herrialdeez gain –Txina, Myanmar eta Vietnam–, Indian, Afganistanen eta Filipinetan ere kazetariak zeuden kartzeletan 2023an. «Indiako 2024ko apirilko hauteskundeak prentsa-askatasunaren froga izatea espero da, terrorismoagatik izandako prozesu judizialak, lege kikilgarririk eta erredakzioetan indarrez sartzeko joerak arau bihurtu diren herrialde batean», adierazi du.

«Mundu osoan iritsi gara une kritiko batera. Kazetaritzalana zapaltzen duten legeak erabiltzeari utzi behar diogu. Urte historiko batean, milaka milioi boto-emaile mundu osoko bozkalekuetara joango dira, eta komunikatzaileek informatzeko askatasuna dutela bermatu behar dugu, demokrazia ez kaltetzeko», azpimarratu du Ginsbergek.

«HONDORATZE ISILAK»

Pasaporte bat Nuakchoten, itsasoan isiltasuna eta dolua ere ezin amaitu

📁 MIGRAZIOA / Jose Maria RODRIGUEZ (Efe)

Mauritanian itsasoratutako zazpi txalupa desagertu dira bidaiari guztiakin urtea hasi denetik. Nazio Batuek «hondoratze isila» deitzen diotenaren icebergaren punta dira. Abdouren eta Brahimen anaia horietako batean zihoan; pasaporteaz ez, pasaporteak urtebete darama Espainiak Nuakchoten duen enbaxadan, bisa baten zain.

Mauritaniako bi etorkinak herrialdeko eskualde txiroenatarikoa den Guidimakakoak dira, eta aste-betez utzi dituzte beren lanak Frantzian, Tenerifera eta Kanaria Handira joateko, etsita, Dembari buruzko edozein berri lortu nahian.

Anaiaren txalupa urtarrilaren 16an irten zen Nuadibutik, 65 pertsona zeramatzala, tartean zortzi emakume. Senegalgo, Maliko, Gineako eta Mauritaniako gazteak, batez ere. Bi txalupa gehiago abiatu ziren goizalde hartan bertan herrialdearen iparraldeko hiri horretatik Kanariar Uharteetara. Bakarra iritsi zen Hierrora.

Itsasoan hamar egun egin zituen, 77 bidaiarietatik 11 galdu ondoren, jasanezinak ziren baldintzetan aurkitu zuten arte. Oraindik bi gorpu zeramatzan barruan, eta beste bost lagunek ospitalean amaitu zuten egun hartan.

Abdouk, Brahimek eta Belgikan bizi den lagun batek asetebe eman dute Kanariar Uharteetan. Beren ahaideek, ospitale batean zeudelako edo, agian, atxilotuta zeudelako, ez zuten bizi-zantzurik eman. Frantziako Itsas Armadak ere itxaropena ez galtze-

ko aholkatu zien, batzuek hiru astez bizirik irautea lortu dutelako urrik gabe, noraezean.

Baina Abdouk amore eman du. «Bi egun dira etxera deitzen ez dudala. Ez daukat ezer gurasoei kontatzeko», dio.

Mauritaniako langile honek bere eta bere anai-arreben nortasuna ez ezagutarazteko eskatu du; familiari kalte egingo dion beldur delako; beraz, erreportaje honetan agertzen diren izenak fikziozkoak dira.

Etorkinekin txalupa bat, Kanariar uharteetara iristen. STINGER



EFerekin hitz egitea onartzen badu, gehiago ezin duela da, eta, batez ere, zehaztu egiten du, beldur delako bere anaia txikiek edo bere herriko beste mutil batzuek Dembaren bideari berrekingo ote dioten. Bere oinazeak asmo horretan uxatzea espero du

LANIK EZ AZAL BELTZEKOENTZAT

«Duela hamabost urte joan nintzen Frantziara, eta, beraz, ez nago oso jakinaren gainean Mauritaniako egoeraz. Badakit gauzak ez direla errazak han, badakit azal beltzeko pertsonentzat ez dagoela lanik. Eta gazteek dena ematen dute aurrera egiteko eta aukera bat izateko ahaleginetan».

Abdouk anaiaren historia kontatzen du Vecindarion, kalima izeneko haizeak jotako egun astun horietako batean, non Saharako hautsak autoak estali, biriketan sartu eta Kanariar Uharteak Sahelena bezalako errealitatetik oso gertu daudela gogorarazten dien.

Anaiari ez zitzaion guztiz gaizki joaten Guidimakan. Inguruko elektrikari tituludun bakarretakoa zen, eta eraikuntzan eta noizean behin konponketak egiten aurrera egiten zuen bizitzan. Hilean 400 euro inguru kobratzen zituen, baina urteak dira Europarekin amets egiten zuela. Ez Frantziarekin, bere anai-arrebek bezala, kontratu batekin emigratu ahal izan baitzuten, Espainiarekin baizik.

«Barçako 'forofo' bat da. Bartzelonaren inguruko guztia gustatzen zaio. Gaztelania ikasten ari zen, Estatu espainiarrarekin amets egiten zuen... Kultura, janaria, futbola...», gogoratzen du. «Urtebete da bisa eskatu zuela, baina ez zioten inoiz erantzun. Gordailua eta pasaporteak han jarraitzen dute, enbaxadan».

Dembak ez zien inoiz anaiei bere asmoen berri eman. Izan ere, Abdouk jakin zuen Kanariar Uharteetara abiatu zela handik irten eta hiru egunera. Txalupa berean ontziratzen saiatu zen ezagun baten ahotik jakin zuen, baina lurrean geratu zen denak sartzen ez zirelako. 1.200 euro inguru ordaindu zituzten, hainbat hila-betetako lansaria.

ITXAROPENETIK EPAITEGIRA

Abdou eta Brahim Frantzian hasi ziren lana bilatzen: Gurtze Gorrira jo zuten, eta hark Itsas Armadara bideratu zituen. Itsas Armadak, berriz, Rabati eta Guardia Zibilari egin zien kontsulta. Dena arrakastarik gabe, horregatik erabaki zuten Kanarietara hegan egitea; horregatik, eta gurasoak oso gaizki daudelako.

Anaiek desagertzearen salaketa formala jarri berri dute Kanaria Handiko Epaitegi batean, eta hori jasota geratzea komeni zaiela aholkatu diete.



Txalupa bat, gau beltzean, itsasoan galduta. Ondoko irudian protestak Dakarren, Senegalgo hiriburuan. EPI/AFP

Eta, agian, tramite horrek errealitatearekin aurrez aurre jarri ditu.

«Nire familia izutu egin da eta nik itxaropena galdu dut. Gaur goizean jaiki naizenean, konturatu naiz ez dudala gehiago egiterik, ahal dudan guztia egin dut. Ez dago besterik», etsita hitz egiten du.

Abdou maletak prest ditu itzultzeko, baina bi egun dira gurasoei deitzen ez diela. Ez daki zer esan. Gogoan du bere aita oso gaizki dagoela, Dembaren desagerpenak suntsitu egin duela, eta bere ama ondorio berberetara iritsi dela susmatzen du, nahiz eta oinazea irentsi eta barrutik eramaten duten emakume horietakoa izan. «Atzo arte, sei edo zazpi aldiz deitzen zidan egunero, ez

etsitzeko esaten zidan, nire anaia indartsua dela, maitasunez betea dagoela... baina mugikorrek ez du gehiago josten», dio. «Nire anaia oso familiarra zen, beti zegoen etxean. Eta nire gurasoek ezin izango dute dolua egin zer gertatu zaion jakin gabe».

Agurtu aurretik, Abdou zailantza bat agertzen du. «Zuek badakizue Kanarietan zer gertatzen ari den bide honetan. Posible al da?», galdetzen die, digu, lege-tramiteak egiten lagundu dion abokatuari eta kazetariari. Ez du erantzunik entzuteko astirik, ezta gogorik ere: «Leku guztietara joan gara, poliziara, ospitaleetara, harrera zentroetara... Horregatik esan genuen atzo anaiak eta biok 'bukatu da'».

Dembaren txalupa urtarrilaren 16an irten zen Nuadibutik, 65 pertsona zeramatzala, Senegalgo, Maliko, Gineako eta Mauritaniako gazteak, batez ere. Ez dago haien berririk

Abdou eta Brahim anaiek astebetetz utzi dituzte beren lanak Frantzian, Tenerifera eta Kanaria Handira joateko, etsita, Dembari buruzko edozein berri lortzeko. Guztiz etsita daude

MAURITANIARI DIRUA, SENEGALI KRISIA

Ursula von der Leyen Europako Batzordeko presidentea eta Pedro Sanchez Espainiako gobernuburuak Mauritaniara bidaiara egin dute pasa den ostegunean paperik gabeko migrazioa leuntzeko EBren eta herrialde horren arteko lankidetzaren areagotzeko asmoz.

Mohamed Ould Ghazouani Mauritaniako presidentearekin bildu ziren.

Azkenaldian etengabe iristen dira paperik gabeko migratzaileak, batez ere Kanariar Uharteetara, bertatik sartzen baita gaur egun ordenatu gabeko migrazio-fluxuen % 80. Aurten Estatu espainolera iritsi diren txalupen % 83 herrialde horretatik sartu dira.

Barne Ministerioaren datuen arabera, urtarrilean Kanariar Uharteek 7.270 etorkin jaso zituzten 110 patera eta txalupatan, 2023ko lehen seihileko osoan zehar kostaldera iritsi ziren bezainbat.

Joan den urrian, EBk 10,5 milioi euroko dirulaguntza eman zion Mauritaniari, Margaritis Schinas Europako Batzordeko presidenteordea eta Fernando Grande-Marlaska Barne ministroa buru zituen ordezkari batek herrialde horretara egindako bisitan.

Bruselak 600 milioi euro inbertitu ditu dagoeneko Mauritaniari, eta EB eta Madril prest daude herrialde horretan gehiago inbertitzeko hainbat arlotan, besteak beste, segurtasunean.

Bitartean, Mauritaniarekin hegoaldera muga egiten duen Senegalen eremuan aspaldiko krisi politikoa areagotu egin da azken egunotan.

Gobernuak proposatuta, Parlamentuak otsailaren 25erako deituta zeuden hauteskunde presidentzialak abenduaren 15era atzeratzea erabaki du, oposizioaren eta kalearen haserrerako.

BARAJASEKO AIREPORTUA, ASILO-ESKATZAILEEN GELTOKI LOTSAGARRIA

Gainpopulazioa, baldintza osasungaitzak: Madrilgo aireportuak Afrikako asilo-eskatzaille ugari jaso zituen urtarril-otsail hasieran. Gobernu espainolak bisa berriak ezarri arren, Gurutze Gorriak amore eman du eta babes lanak eten ditu protesta gisa.

Gehienak Senegaldarrak dira, eta ehunka migratzaile klandestinoak geldialdia egin dute azken asteotan Madril-Barajasen, non, jendez betetako areto eta inolako bizi baldintzarik ez duten «logelatan», nazioarteko babesa eskatzeko edo kanporatuak izateko zain egon diren.

«Gehiegizko populazioak eta jasangaitzak diren osasun eta ogasun baldintzek maila kritiko guztiak gaintitu dituzte, txintzarri pilaketekin, zabor pilaketarekin», «koltxoi puzgarrietan lo egitera edo (...) oheak eta komun bakarra partekatuz» behartuta dauden pertsonekin, Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeak (CEAR) salatu duenez.

Poliziek prentsara bidalitako bideoetan labezomorroak ageri dira lurrian, eta dutxa zikin-zikinak.

Urtarrilean bakarrik, 864 asilo eskaera erregistratu ziren Barajasen, 2022. urte osoan (767) baino gehiago, zifra ofizialen arabera. CEAREN eta SUP polizien sindikatuaren arabera, Barajasen 390 eta 450 migratzaile espero zituzten urtarrilaren amaieran, eta 250, abenduaren amaieran.

Gainezka, agintariek ezin izan dute ekidin 17 pertsonak ihes egitea kristal bat hautsiz, polizia iturri batek AFPri adierazi zionez. Sei pertsona ihes egiten saiatu ziren sabai faltsu batetik.

Gertaera arraroa izanik, Gurutze Gorriak aireportutik erretiratzea erabaki zuen joan den astean, baldintza horietan behar bezala ezin zuelako lan egin, Jose Javier Sanchez bozeramaileak telebista publikoari adierazi dionez.

«Bisarik eskatzen ez dieten Latinoamerikako herrialdeetarako» hegazkin-txartelaren jabe diren migratzaile klandestino horiek – Marokotik, Somaliatik, Malitik, Kenyatik, Mauritaniatik datozenak – asiloa eskatzen dute Madrilan egiten duten geldialdian, SUP sindikatuko bozeramaile batek AFPri azaldu dionez.

Gehienek, hegazkinean daudela, identifikazio paperak suntsitzen dituzte edo adingabeak direla esaten dute, berehala kanporatzea saihesteko. Gehienetan, asiloa eskatzen dute, gatazkan dagoen herrialde batetik datozela ziurtatuz.

Pilaketak atzerapenak eragiten ditu asilo eskaeren tramitazioan, CEAREN arabera. Urtarrilaren hondarrean, 182 erregistratu ere ez zituzten egin, hainbat aste bertan eman ostean.

Joan den udatik aireportuko asilo-eskatzaille kopuruak gora egin badu ere, igoera esponentziala izan da 2023 amaieratik, eta abendu amaieran hiru

epailek migratzaile horiek hartzen dituzten aretoetako «osasungarritasunik, higienarik eta intimitaterik eza» eta «janari falta» salatu zuten.

Herriaren Defendatzailea urtarrilaren 19an bertaratu zen, eta pertsona horien «oinarriko eskubideak errespetatuak izan daitezen» neurriak hartzeko eskatu zion Gobernuari.

Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariak (UNHCR) ere «baldintza duinen falta» salatu zuen, eta «premiatzko neurriak» hartzeko eskatu zien Espainiako agintariei.

Presiopean, Espainiako Barne Ministerioak itxarongela berri bat ireki du, eta, ondorioz, harrera ahalmena % 47an handitu du, eta intsektuen ugaritzearen aurrean beharrezkoak diren «desinfekzioak» egin dituela ziurtatu du.

Jendetza hori geldiarazteko asmoz, Gobernuak beste zirkulazio-bisa bat ezarri du senegaldarrentzat, otsailaren 19tik aurrera geldialdia eginez herrialdeko aireportuetan, eta Kenyakoentzat otsailaren 20tik.

Espainia da paperik gabeko immigrazioa Europan sartzeko ate nagusietako bat. Iaz 56.852 pertsona sartu ziren herrialdean legez kanpo, 2022an baino ia bi aldiz gehiago (% 82,1), Kanarietako artxipelagora inoiz baino gehiago iritsi zirelako. Urtarrilean, duela urtebete izan zen iritsieren erritmoa azkartu egin da, gainera.



Barajaseko aireportuko geldiune-eremu bat asilo eskatzaillez gainezka. EP



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Loturak

Mundua hutsa legoke adiskidetasunik ez balego. Lagunak, figura emozional horiek, ez dira gure bizitzako aliatuak bakarrik, eguneroko euskarri handi eta gu izateko babesleku ere badira. Hala ere, urteak igaro ahala, badirudi gero eta zailagoa dela adiskidetasun on bat sortzea. Lagunak bizitza osoan zehar joan eta etorri egiten dira. Txikiak garenean, lagunak egitea erraza delako sentsazioa izan dezakegu. Baina, eta helduena? Nola egin lagunak helduak garenean? Haurrak lagunak izateko gai diren bakarrak balira bezala.

Pertsona bakoitzaren ezaugarriez haratago, lotsatia izan ala ez, helduentzat ez da oso erraza izaten lagunak egitea. Izan ere, estatistiken arabera, helduak gero eta bakartiagoak gara. Lagun iraunkor eta egiazkoak egiteko etaparik onena haurtzarora dela esaten da, eskolan gaudenean. Gero, denboraren poderioz, aldapa gora egiten zaigu benetako lagunak sortzea. Adibidez, norbaitekin lan egiten dugu egunean ordu askotan, baina horrek ez du esan nahi pertsona hori gure laguna denik. Bestalde, egia da, denbora gehien pasatzen dugun pertsonen lagun egiteko joera dugula.

Edonola ere, denok dugu edo izan dugu adiskidetasun bat baino gehiago, eta badakigu zein atsegina den bizitzaliatu bat, eguneroko lagun bat eta dena sar daitekeen babesleku emozional hori edukitzea: pozak, eta baita atsekabeak ere. Lagun batzuk atzean geratzen dira etapa bat ixten dugunean, adibidez, ikasketa garaikoak; beste batzuk une jakin batean agertzen dira eta ez dira gehiago joaten gure bizitzatik; eta badira bizitzako kontuak direla eta gure ondoan egoteari utzi diotenak ere.

Haurrak garenean eta eskolatzeari ekiten diogunean, gehienek mezu hau jasotzen dugu: «Guztion lagunak izan behar dugu». Premisa hori, hau da, ingurukoekiko erres-

petua eta adeitsuak izateko beharra, baliagarria izan daiteke; hala ere, ez da posible, ezta positiboa ere, gure inguruko guztiekin atsegin hartzen eta lotura sakonak sortzen saiatzea. Egia esan, lagunarteko harremanak oso onuragarriak dira. Kide izatearen zentzua garatzen laguntzen digute, leialtasuna, elkarrekiko babesa eta intimitate emozionala bezalako balioak lantzen. Gainera, gure osasun fisikoa eta emozionala babesten dituzte, eta ezbeharrei aurre egiten laguntzen digute. Hala ere, zirkulu hori elikatuko dutenak aukeratzea funtsezkoa da.

Adiskidetasun mota desberdinak daude eta, zintzoak eta aberasgarriak diren bitartean, ez du axola intimitate mailak. Hala ere, beti gertatzen den bezala, badira landare batzuk askoz gehiago estimatzen ditugunak. Adiskidetasunaren munduan ere gauza bera gertatzen da: gure zirkulu pertsonalean konplizitate handiagoa dugun pertsonak di-

tugu, baita, intimoak izatera iritsi gabe, haiekin hitz egitea atsegin dugun pertsonak ere; gauza puntualak partekatzea, aldian-aldian ikustea. Kasu gehienetan, ondo sentitzen garen eguneroko elkarrekin horien beharra dugun izaki sozialak gara. Berdin eskertzen dugu gure betiko okinarekin izandako elkarrizketa, lankide batekin kafe bat hartzen emandako denbora edo gure lagunik onenarekin gure kezka azaltzeko egindako ibilaldi konplizeagoa.

Beraz, gure ongizatean bitartekari izateko, ona da eguneroko kontaktu sozial atsegin horiei guztiei bere lekua ematea. Elkarrizketa laburrak, eguna nola doakizun bezalakoak, beti aberasten gaituzte. Eta horrelako "loturak", lagun onak bezala, landu eta sustatu beharko genituzke gure zimurrak urtez eta gozatutako esperientziez bete arte. •



Lagunarteko harremanak oso onuragarriak dira. Carlos BARQUERO | GETTY

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Zer ote du oraintxe Urkulluk buruan?

Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzerra hautatzeko hauteskundeak badatozela gauza jakina da. Nahitaez, legealdia amaitzekotan baitago. Legeak hala dio. 2020ko uztailean izan ziren aurrekoak, uda batean, koronabirusaren pandemiak eragindako atzerapenak behartuta. Lau urteko epea amaitzera doa, beraz. Begi-bistako kontua da, baina hala izan arren, joko politikoaren erdian dugu kontua. Zehaztasunak edo zehaztasunaren beharrak harrapatu gaitu espekulazioaren zepoan, gezurra badirudi ere hain tarte txikia egonda. Honezkerok jakin beharko baikenuke zer bait.

Horren arrazoia Urkullu lehendakaria da. Normalean, edozein gobernu presidentek data dantzara jokatatu ohi du; batzuetan aurrerapena egongo dela ukatuz eta segidan deialdia eginez; beste batzuetan, denak ustekabearen hartuz inork espero ez zuen iragarpena eginez.

Gogoratzea besterik ez dago iaz Pedro Sanchez espainiar presidentek udal hauteskundearen ostetik, biharamunean, Espainiako hauteskunde nagusiak konbokatutako zituela. Harri eta zur utzi zuen mundu guztia, etxeokak eta, are gehiago, arerioak.

Oraingo honetan, ordea, badago kontuan hartzeko beste faktore bat, edo agian faktore bikoitza dela esan beharko genuke: nola gertatu den EAJren lehendakari hautagaiaren izendapena eta Iñigo Urkulluren beraren izaera berezi samarra.

Albisteaz ezagutu zen unean, nonahi ahapeka ibili zen “sekretua” izan zen Urkulluk beste legealdi baterako bere burua aurkeztu nahi zuela eta ustekabearen harrapatu zuela hautagaia aldatzeko EBBk egindako mugimenduak. Horrela, filtrazio bidez, Ortuzarri operazioa abiatu orduko lehertu zitzaion esku artean.

Urkulluk, ordea, ez du horri buruz ezer esango jendaurrean. Oraingoan, bederen. Nork daki etorkizunean, lehenago ere esanak baititu esan behar ez zirenak: Ibarretxe lehendakariaren ondoan egotea zenbat kostatzen zitzaion aitortu zuen ordukoa, esate baterako.

Hauteskondeei begirako lehen urratsetan, alderdiak eta Pradales hautagai berriak hartu dute hitza, normalean denez; baina, hauteskunde deialdiari dagokionez, lege ere lehendakariaren ahalmena delako, badirudi Urkulluk bere iritziari balioa eman nahi diola. Bere legealdia lehenetsi nahi duela, alegia. Ez dira egun asko oraindik lanak egiteko daudela esan zuela.

Beharbada, hitzak baino ez dira; baina, akaso, Ajuria Eneko egungo maizterren pertsonalitatearen adierazle ere badira adierazpenok, askotan azaldu baita temati eta besteen kritikei zein iritziei entzungor eginez. Armagabetzean “artisaunen” ekimena oztopatzen

Beharbada, hitzak baino ez dira; baina, akaso, Urkulluren pertsonalitatearen adierazle ere badira hitzok, askotan azaldu baita temati eta kritikei entzungor

saiatu zen eta Pandemiako, Osakidetzako, Zaldibarrek... krisietan lekuz kanpokoak egin eta esan ditu, adibide batzuk jartzearen.

Halere, seguru asko, hitzak baino ez dira, ez baita Euskal Herriaren pertsona bat bera ere politikoki honi amaiera eman behar zaiola ez dakienik. •

OHARRA: beste zenbaitetan esan dugunez, GAUR8-ko azken artikuluak ostegunean egin ohi ditugu. Orduan bidaltzen da astelehen osoa errotatibara, larunbatean GARArekin banatu ahal izateko. Badaezpada diot. Larunbata iritsi aurretik inolako berririk egon bada. Halakoa da joko hau.

GAZTEAK MAGIAN, LILURA GAL EZ DADIN

Belaunaldi berriak gogotsu datoz, euskal magia indarberritzeko prest

📁 KULTURA / Asier AIESTARAN

Magia kultur diziplina estimatua da, ikusleengan lilura berezia sortzen duena eta, testuingurua edozein dela ere, erraz ulertu eta gozatu daitekeena. Magia egitea, ordea, beste kontu bat da. Magiazale izatetik mago izatera igarotzeko ez dago truko miragarririk. Lan handia eskatzen du eta gazte asko dabilta bide hori urratzen.

Duela hilabete pare bat, gabon garaiko oporrak baliatuz, "Gabon magikoak" ikuskizuna eskaini dute Gipuzkoako zenbait herritan. Formula, sinplea bezain erakargarria: ibilbide luzeko mago batek gidatutako ikuskizunean jendaurreko lehen pausoak ematen ari diren hiruzpalau mago gazte ezagutzeko gonbita.

Magiak badu bere tradizioa Euskal Herrian, eta hor dago azken hamarkadatan Txan,

Peio Rivas bilbotarrak nazioarteko hainbat sari irabazi ditu bere ikuskizunarekin. «Manipulazioa» deitzen zaion magia mota lantzen du batez ere.

UTZITAKOA

Eriz edo Tor bezalako magoek egindako lana. Era berean, kultur diziplina oso bizia da, beste guztiek bezalaxe belaunaldi berrien ekarpena ezinbestekoa duena aurrera egiteko.

Euskal mago gazte horietako lau dira Peio Rivas (Bilbo, 2003), Maria Arandia (Errenteria, 2002), Eneko Gutierrez (Legazpi, 2001) eta Xabi Linazasoro (Donostia, 1995). Bakoitzak bere egiteko modu propioak dituen arren, helburu eta ilusio asko partekatzen dituzte, eta arrakastatsua izatea espero duten ibilbide baten hasieran daude.

HASIERAKO LILURA GOGOAN

«Azti lana, isileko edo ezkutuko bidez gertakari miragarriak

edo itxuraz miragarriak sortzeko antzea; antze horri dagokion jakintza». Horixe Euskaltzaindiaren hiztegiak magia hitza definitzeko darabilen deskribapena. Eta lilura gehitu lekiokio azalpenari, lilura sortzen baitu beste ezeren gainetik magiak ikuslearengan. Zenbait kasutan, gure protagonisten artean adibidez, norberak ere magia egiteko nahia sortzen duen lilura.

Izan daiteke lilura hori oso txikitatik etortzea, Xabi Magoak aipatzen duen moduan. «Beti gustatu izan zait antzerki mundua, eta bereziki magiaren arloa. Txikitatik amak askotan eramaten ninduen magia ikustera eta esan dezaket oso txikitatik zaletu nintzela. Nire lehen magia trukoak, adibidez, bideoan grabatuta daude eta nik lau urte besterik ez nituen», gogoratu du gipuzkoarrak.

Adina gorabehera, lilura horren erakusgarri da mago gehienek ederki gogoratzen dutela txundituta geratu ziren eguna. «Nik magia 2014an deskubritu nuen, 12 urterekin. Lagun batek magia truko bat egin zidan eta, nola ikasi zuen galdetu nionean, eskolako liburutegian zegoen liburu batean ikusi zuela aipatu zidan. Bi aldiz pentsatu gabe liburu horren bila joan nintzen eta pila bat gustatu zitzaidan. Liburu horretatik abiatuta, magiaren mundua deskubritzen joan nintzen», kontatu digu Eneko Gutierrezek.

Antzeko istorioa dago Peio Rivas bilbotarrak magiarekin izan zuen lehen harremanaren atzean: «Gaur da eguna 'zorionez' esaten dudana eta ez 'zoritxarrez', baina kontua da nik futbolearen jokatzeko nuela eta min hartu nuela. 15-16 urte nituen eta ohikoa baino



denbora gehiago izaten nuen beste gauza batzuetarako. Justu garai hartan "Got Talent" saioaren lehen denboraldia ematen ari ziren telebistan eta mago bat ikusi nuen bertan, nire bizitzan ikusiko nuen aurrenekoa agian. Kartak desagerarazten zituen, kolorez aldatu... Erabat harrituta utzi ninduen eta magian interesatzen hasi nintzen. 2016 edo 2017 urtea izango zen, oraindik min hartuta jarraitzen nuen, eta magia egiten hastea pentsatu nuen».

MAGOEN KOMUNITATEA

Mago edo ilusionista bezala lehen urrats horiek ematea, ordea, ez da batere erraza. Lau gazteek onartu digutenez, hasieran norbera bere kasa hasten da magia trukoak deskubritu eta egiten, baina hobetzen joateko ezinbestekoa da beste mago batzuk ezagutu eta komunitatearen laguntza baliatzea.

«Hasi nintzenez ez nuen ezer ezagutzen, baina pixkanaka-pixkanaka pertsonak ezagutzen joan nintzen, magoekin harremanetan jartzen, eta beraiek hasi ziren liburuak gomendatzen, eta horri esker asko ikasi nuen. Zeren hasieran pentsatzen duzu magia egitea sekretua (trukoa, kaleko hizkuntzan) ongi egitea dela, baina gero konturatzen zara sekretu edo misterio horren atzean lan asko dagoela. Nola aurkeztu, nola landu, nola egokitu egin beharrekoa zure gaitasunetara...», hausnartu du Maria Arandiak.

Eta Eneko Gutierrezek ere antzeko gogoeta egin du. «Nire kabuz hasi nintzen. Askok irakurtzen eta nire kontura. Baina urteak pasatu ahala magoak ezagutzen hasten zara eta hori da garrantzitsuena,

«Oso gogobetegarria da. Ikasten hastean aurreneko egunetik ez diozu zure buruari mago deituko, baina kasik lehen egunetik egin dezakezu magia», dio Maria Arandiak

«Saiakera bat egiten ari gara ulertarazteko magia ez dela haurrentzat bakarrik. Askotan magoaren figura infantilizatu egiten da», aldarrikatu du Eneko Gutierrezek

asko ikasten duzulako besteengandik. Esango nuke bereziki mago gazteek oso harreman polita sortu dugula gure artean. Noski, magia eskola asko daude gaur egun. Madrilen Magia Institutu bat dago, Unibertsitate bat ere bai El Escorialen, baina nire kasuan nire

Maria Arandia errenteriarra, ikuskizun batean. Magia poetiko-komikoa egiten du eta Azpeitian Gertuko Magia Txapelketaren saria irabazi zuen 2021ean. 2022an Toledo Ilusion sariketan hirugarren geratu zen gipuzkoarra.
UTZITAKOIA

kontura egindako bidea izan da», kontatu digu.

Xabi Linazasorok ere elkarlana eta laguntzeko prestutasuna gorai patzen ditu. «Zenbait urtez nire kabuz ibili nintzen, ez nuelako beste magorik ezagutzen, eta gero, Xixka Gipuzkoako magia elkarteak ezagutu nuenean, harremana egin nuen beste mago batzuekin. 'Magialdia' jaialdira joateko ohitura hartu nuen eta EAE mailako mago pila bat ezagutu ditut, zorionez komunitate handia dagoelako magiaren inguruan. Nahiz eta ikasketa prozesua nahiko indibiduala izaten den, beti daukazu aukera gauzak partekatzeko, ideia berriak konpartitzeko. Eta prozesu hori oso polita da».

Peio Rivasen kasua apur bat desberdina da, bilbotarrak magia eskola batean ikasteko aukera ere izan zuelako: «Uda batean bi hilabetez interneteko edukiak ikusten egon nintzen. Youtube eta antzekoetan aurkitzen duzun materiala oso mugatua da, baina balio izan zidan txispa hori pizteko eta nire hasierako jakin-mina asetzeko. Lehen jokoak ikasi, lehen trukoak, erabiltzen diren karta edo beste objektu batzuk deskubritu... Eta gustatzen zitzaidala ikusita, amari behin eta berriz eskatu nion Bilbon zegoen magia akademia batera joan nahi nuela. Astean behin joaten hasi nintzen, eta hor deskubritu nuen benetan magia zer den, magia



mota desberdinak... Urte pare batez joan nintzen akademiara eta nire interesa are gehiago handitzen joan zen».

JENDAURRERAKO JAUZIA

Baina Rivasentzat ere beste mago baten laguntza oso garrantzitsua izan zen bere ibilbidean gakoa izan den aurrerapausoa emateko. «Joaten nintzen akademiako zuzendariak magia gala bat antolatzen zuen Bilbon, eta hura ikustera joan nintzenean, bereziki mago bat gustatu zitzaidan, Imanol Perez de Albeniz gasteiztarra. Karta ikuskizun bat egiten zuen, musikarekin lagunduta soilik, hitzik egin gabe. Kartak handitu, txikitu, desagerrarazi... gauza txundigarriak egiten zituen itxuraz oso modu sinplean. Magia mota horri 'manipulazioa' deitzen zaio, eta dagoen magia zailenetakoa da. Instagram bidez berarekin harremanetan jarri nintzen, galdetzeko ea klaseak ematen zituen. Ezetz esan zidan, baina nahi banuen hilabetean behin joateko eta ahal zuena irakatsiko zidala: eszenaratzea, arnasketa...», gogoratu du.

Eta Gasteizen landutako ikuskizuna izan da Peio Rivasi sari asko irabazteko aukera eta jendaurrean bere lehen ikuskizunak egiteko aukera eman dizkiona. «Bertan ikasitakoarekin ikuskizun bat prestatu nuen eta lehiaketa desberdinetan aurkeztu nuen: Bartzelonan, Zaragozan... Sei minutu inguruko ikuskizun bat da, musikaz lagunduta egiten dudana eta azken urte hauetan lantzen jarraitu dudana. Lehen aldiz jendaurrean, antzoki batean benetako publikoarekin, bi lehiaketa horietan jardun nintzen, eta bietan irabazi egin nuen. Hori ikusita, Imanol nazioarteko beste lehia-



keta batzuk gomendatu zizkidan, ospe gehixeago lortzeko bidean lagungarriak izan zitezkeenak», azaldu digu.

«Aipatu dudan magia motak aukera hori ematen dizu, bertako hizkuntza jakin beharrik gabe herrialde desberdinetan aurkeztu dezakezula zure ikuskizuna. Magia hizkuntza unibertsala da, zuk karta bat desagerrarazten baduzu berdin-berdin ulertzen da hemen eta Txinan. Apurka-apurka nik bilakaera bat izan dut mago bezala, ikuskizuna ere aldatzen joan da denborarekin, eta sari desberdinak irabazteko aukera izan dut leku desberdinetan: Letonian, Frantzian, Italian, Portugalen...».

Eneko Gutierrez eta Maria Arandiaren kasuan, jendaurreko ikuskizunetara urratsa elkarrekin ematea erabaki zuten "Enikma" izenarekin. «Jendaurrean oholtzara lehen aldiz 19 urterekin igo nintzen –ekin dio azalpenari Eneko–. Esan nahi dut jada bost bat urte baneramatzala magia ikasten, nire burua prestatzen. Urrats handia 2020an egin nuen, jus

Eneko Gutierrezek magia komikoa egiten du eta «Magiaz blai» izeneko ikuskizuna estreinatu berri du. Gainera, Legazpin, bere herrian, Euskal Magiaren gala ipini du martxan, hitzordua egutegian finkatzeko asmoz.
UTZITAKOA

tu pandemia bete-betean, Mariarekin. Biok egoera antzekoan geunden eta elkarrekin urrats hori ematera animatu ginen. Ikuskizun bat prestatu genuen, eta aurrera. Gure burua prest ikusten genuen, eta aldamenen or bait izateak nik uste konfiantza eman zigula publikoari aurre egiteko».

«Hortik abiatuta, konfiantza hartzen joan nintzen eta nire ikuskizun propioak egiteko gai ikusi nintzen. Gaur egun bakoitza gehiago dabil bere aldetik, baina garrantzitsua izan zen elkarlan hori. Badira magoak hasi eta berehala jendaurrean aritzeko gai direnak, baina nire kasuan prozesua

luzeagoa izan zen erabakia hartu arte. Eta jada hiru bat urte daramatzat jendaurrean magia egiten», gehitu du 'Magiaz blai' izeneko ikuskizun berria estreinatu berri duen mago legazpiarrak.

EMAKUME GEHIAGO

Maria Arandiak ere antzeko bidea egin du, eta, batzuetan inguruan oso emakume gutxi izatearen sentsazioa eduki duen arren –«ni hasi nintzenean ezagutzen nituen ia denak gizonezkoak ziren»–, esan du horrek ez diola oztoporik suposatu. «Hasieran bai, sentsazio hori izan nuen, ingurura begiratu eta nolabait pentsatzea edo nire buruari galdetzea 'hau gizonentzat bakarrik al da?'. Baina ni horrek ez nau inoiz geldiarazi. Nik argi neukan magoa izan nahi nuela, eta gerora konturatu naiz, mundu honetan gehiago sartu ahala, nire egoera berdinean beste emakume asko daudela. Eta estatu mailan, adibidez, emakumezko mago asko eta oso onak daude».

«Profesionalizatzen saiatu nahi dut, profesionala izatea gustatuko litzaidake. Uste dut magiaz bizi daitekeela, baita Euskal Herri mailan lan egin da ere. Hemen zortea daukagu, jendeak asko baloratzen duelako magia eta magoen lana, kultura orokorrean», dio Arandiak etorkizunari buruz.

Profesionalki izan ala ez, euskal mago gazteen helburua ahalik eta ikuskizun gehien egitea da, horretarako maila badutelako. Mariak argi du. «Sekulako etorkizuna dagoela iruditzen zait. Gazte asko gabiltza magia egiten eta uste dut denon artean diziplina hau asko bultzatuko dugula». Badakizue, zuen herriko agendan ikusiz gero, ez galdu!

«Publiko beroena Italiakoa iruditu zait, sekulako beroa sentitu nuen bertan. Eta, aldiz, publiko hotzera Frantzian aurkitu dudala esango nuke», sailkatu du Peio Rivasek

«Hasieran shock nahiko handia izan zen, jendea askoz hotzagoa zelako. Sekretuak ez dituzte partekatu nahi», dio Xabi Linazasorok Londresko "The Magic Circle" elkarteaz

XABI LINAZASORO

MAGOA ETA EDUKI SORTZAILEA

«Magiaz idatzitako literatura espezializatuan ez dago ezer euskaraz, eta guk pauso txiki bat egin nahi izan genuen bide horretan»

Bere magia ikasketa prozesuan nabaritu zuen hutsunea apur bat bete nahian, Xabi Linazasorok "Gure hitzetan" liburua idatzi zuen iaz Elene Mendizabalekin batera. Ordura arte atzerriko hizkuntzetan bakarrik aurki zitezkeen magia efektu batzuk euskaratu zituzten, bilduma aberatsa osatuz. Eduki sorkuntza ez zen gauza berria Linazasororentzat, bideojokoen arloan podcast bat (Jokutopia) zuelako, YouTuben gida bat, eta Twitch-eko zuzenekoetan ere esperientzia. Euskaraz bide berriak ireki ditu donostiarrak.

Nola sortu zen magia egiten ikasteko liburu bat euskaraz idazteko ideia?

Beti egon izan dira magia liburuak euskaraz, batez ere hurrei zuzendutakoak. Normalean atzerrian idatzitako liburuak izan dira, euskarara itzuli izan direnak. Baina magiari buruzko liburu originalak euskaraz, guk dakigula, ez dira batere edo ia batere egon. Guk ideia bat izan genuen liburu bat idaztekoa, eta argi geneukan euskaraz egin behar genuela. Magiaz idatzitako literatura espezializatu horretan ez dago ezer euskaraz, eta guk pauso txiki bat egin nahi izan genuen bide horretan. Hilabete batzuk pasa genituen ideari forma ematen eta, azkenean, auto-ekoizpenaren bidez argitaratu genuen. Azkenean euskaraz magia egiten duen jende oso gutxi dago, liburu honen helburua ez zen publiko zabal batengana heltzea. Oso proiektu espezifikoa zen eta horretan ibili gara. Irakurri duen jendeak oso "feedback"



UTZITAKOA

positiboa helarazi digu, eta oso pozik gaude egindako lanarekin.

Zure kasuan, magia ikasle moduan zein izan da esperientzia? Gaztelaniazko liburuak irakurri izan al dituzu? Edo zuzenean ingelesezkoak?

Gaztelaniaz magia kultura handia dago. Juan Tamariz bezalako magoekin asko landu da. Baina nire kasuan batez ere ingelesezko magia irakurri izan dut, betidanik izan dudalako interes handia eta aspalditik mugitu izan naizelako ingelesezko foroetan. Beti atzerriko hizkuntzetan irakurri izan dugu magia, eta aukera eskaini nahi genuen hasieratik euskaraz pentsatuta dagoen liburu bat egiteko.

Zure sorkuntza lana, ordea, ez da mugatzen magiara. Bideojokoen arloan, adibidez, podcast bat eta zuzenekoak egina zara, euskara ardatz hartuta gehienetan.

Bideojokoak asko gustatzen zaizkit. Gaztetatik asko jolastu izan dut bideojokoetan, eta denbora batez bideojokoak egiten dituen estudio txiki batean ere egon nintzen lanean. Baina eduki sorkuntzari dagokionez, beranduxeago hasi nintzen, jada gradua egiten ari nintzela. Beti eduki izan dut interes handia youtuberrek egiten duten lanarekiko, zuzenekoak egiten dituzten lanarekiko. Lagun batzuekin hasi nintzen proiektu batzuk martxan jartzen, baina horietako batzuek euskaraz ez

zekitenez, normalean gaztelaniaz izaten ziren. Garai horretan Londresen bizi nintzen eta konturatzen nintzen zenbateraino sumatzen nuen faltan euskaraz egitea. Nire bikotekidearekin egiten nuen, baina Londresko lagunekin-eta, noski, ez neukan aukerarik. Eta pentsatu nuen nire afizio horiek bideratu nitzakeela euskarara. Hor deskubritu nuen Twitch-en badagoela euskaraz aritzen den jendea eta lagun asko egin nituen. Oso prozesu interesgarria izan da. Nire lanean beti saiatu izan naiz euskara ardatz bezala erabiltzen. Azken batean, alor asko daude non euskaraz ez daukagun ia erreferenterik, eta beharrezkoa da komunitate horietan ere euskara txertatzea. Jende asko dago gauza oso potenteak egiten eta uste dut horiei bultzada bat emateko balio dezakeela.

Batetik, euskaraz aritzea muga bat izan daiteke, jende gutxiagorengana heltzea ekar dezakeena, baina, bestetik, komunitate bat sortzea errazagoa izan daiteke, ezta?

Noski muga bat dela, noski ez gairela milioidunak egingo edukiak euskaraz sortuta. Oso jende gutxi mugitzen duen mundu bat da, argi dago. Baina uste dut muga horietan zentratzea baino garrantzitsuagoa dela ematen dizkigun aukeretan zentratzea. Nik gaztelaniaz edukiak sortzen nituenean ez nuen sarerik sortu. Gurea egiten genuen, eta listo. Euskararekin, aldiz, berehala jendea topatzen duzu zurekin kolaboratu nahi duena, gonbidatzen zaituena beste proiektu batzuetan parte hartzera. Komunitate askoz ere lagunkoiagoa sortu da hor, eta hori niretzat sekulako aukera izan da jende berria ezagutzeko. Komunitate horrek asko eman dit eta oso eskertuta nago. Beste alde batetik, badago jendea euskara muga bezala ikusten duena, eta pena ematen dit, jende oso baliotsua ari delako beste hizkuntza batzuetan edukiak sortzen. Ulertu dezaket sorkuntza horren helburua ekonomikoa baldin bada, baina pena ematen dit jendeak euskarari baliorik ez emateak.

{ analisia } Amagoia MUJKA TELLERIA Kazetaria

Zer ikusten da Talaia Feministatik?

Talaia esaten zaio ingurunea begiztatzeko eta zaintzeko egoia den tokiari. Goragunea izan ohi da eta eremu zabal bat behatzeko aproposa. «'Talaia' diogu, baina ez gorago gaudelako; ez dugu uste gehiago eta hobeto ikusten uzten digun gain batean gaudenik. Aitzitik, uste dugu poliedro hori ulertu eta aldatzeko beharrezkoa dela

Eremu desberdinetako 30 bat emakume -arituak eta adituak- talaiara igota, ortzi-mugari begira, estatu feminista begitantzen. Bide luzea eta trabatsua espero da, baina ibili beharrekoa.

ortzi-mugari elkarrekin begiratzea. Baina gure talaia behetik eraikitzen da: hitz handi ulertezinez osaturiko adituen egiak bota beharrean, bizitza zehatzetatik eta eguneroko jakintzatik abiatzen da», zehaztu dute.

Talaia feministak Euskal Herriaren egoera behatu eta aztertu nahi du hortik, behatoki feminista horretatik. Irakurketa kolektiboko ariketa bat da eta helmuga gertuago edo urrunago dagoen aztertu nahi du. Helmuga? «Euskal Herrian sustatu nahi dugun trantsizio feminista». Ez da elkarte bat, «baina feministotik eta ezkerretik euskal estatu feminista eraikitzeko prozesuan eragin», nahi du.

Aktualitatea irakurtzeko «ezkerreko emakume feminista, subiranista eta independentistak» igo dira talaiara, 2023. urteari begiratu emateko. Jatorri, eremu eta borroka politiko desberdinetan dabilzan 30 bat emakume, «adituak eta arituak».

Prozesuan parte hartzen ari den Jule Goikoetxearen hitzetan, «gutxitan egon naiz horrelako prozesu batean, non 25-30 emakume elkarrekin diren maiztasun batekin sakoneko gai ideologikoak aztertzeko. Mugimendu feministaren ekarpenari begiratzean, ez da bakarrik arreta jarri behar helburuetan, baizik eta prozesuan. Gure kasuan, subalternoak direnen



Duela aste batzuk aurkeztu zuten Talaia Feministaren 2023ko behin-behineko txostena. Andoni CANELLADA | AGENTZIA

kasuan, prozesuak laguntzen du subalternitatetik ateratzen. Jakintza eta boterea hartzen dituzu eta horrek espazio publikoa hartzeko gaitasuna ematen dizu. Horrek ekartzen du eraldaketa estrukturala. Prozesua oso interesgarria izaten ari da. Oso prozesu gutxi daude non emakumeek orduak eta orduak ematen dituzten estatua nola gobernatu nahi duten eztabaidatzen, gure bizitzak eta gure herria nola gobernatu nahi ditugun eztabaidatzen. Hori da oraingoz Talaiak daukan gauzarik garrantzitsuenaren».

Dagoeneko osatu dute behin-behineko txostena eta datorren otsailaren 17an Erreterian izango den Talai Feminista Unea topaketan partekatu eta itxiko dute txosten hori.

Hausnarketarako sei gai paratu dizkiote 2023ari: eguraldia eta krisi ekologikoa; azaroaren 30eko greba feminista; bizitzaren garestitzea; euskararen aurkako oldarraldi judiziala; Rubiales, Mario Lopez, PPDA eta indarkeria matxista; eta abaiaren debekua.

Gaien hautaketari dago-kionez, «saiatu gara kontsekuenteak izaten gure filosofia ehuntzen duten hiru hariekin», azaldu dute. Kolektibotasuna, desmuntatu beharreko poliedroaren aurpegi desberdinak eta 'bizitza



Goiko irudian, pasa den azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorrean, Ertzaintza protestan ari zen emakume bat lurretik altxatzen. Andoni CANELLADA | FOKU

erdigunean jartzea' izan dira hari horiek.

Krisi ekologikoa

«Kolapso ekologiko baten aurrean gaude». Ingurura begiratu besterik ez dago krisi ekologikoaren zantzuak igartzeko. Eguraldiaren gorabeherak, deforestazioa, bioaniztasunaren suntsiketa, ekoizpen kate global kutsakorren normalizazioa, agroindustriaren hazkundea, itsasoaren azidotzea, neurrigabeko erregai fosilen edota plastikoaren erabilera... nonahi begiratu-ta, badira kezkatzeko moduko seinaleak.

Talai Feministaren txostenak jasotzen duenez, «kolapso ekologikoa ezin da osotasunean ulertu, ez bada zaintza eta krisi sozialik gabe, eta honek, espezifikoki, emakumeen gainean eta zaurga-

rriagoak diren herritarrengan du eragin handiagoa; jatorri, klase eta genero ardatzen eraginpean. Pertsona aberatsenen %10ek munduko CO2-emisioen %48 inguru eragiten dute, eta %1eko eliteak emisio guztien %17. Berziki, ipar globala elikatzeko ekonomiak megaproiektuen gaineko gatazka ekosozialak areagotzen ditu, eta honek herri indigena eta nekazaritza-komunitateetan duen eraginak milaka pertsona erailtzen edota kaltetzen ditugunero, emakumeen gaineko indarkeria eta bortxaketen kopurua areagotuz eta euren zaintza rola muturre-ramanez».

Jendarte eta kontsumo ereduaren ondorio da kolapso ekologikoa. «Hausnartu behar da zein bizitza eta gizarte eredu erdietsi nahi dugun; hala, jendarte ekologikoa, berdinzaleago, bu-

rujabeago eta lurraren eta bertako izakien zaintza bermatuko duen gizarte baterako urrats integralak eman beharko ditugu. Urrats integralak aipatzerakoan, ulertzen dugu baliabide naturalen erabilera gobernatzen duten legeak, horiek sostengatzen dituzten bizi-beharrak, lurraren zaintza lanetan jarduten dutenen lan baldintzak eta pertsonen zaintza lanetan atsedaldiak eta askatasun eskubi-dea bermatzea aintzat hartzen duten neurriak izango direla. Hau da, irtenbide ekofeministak egunerokotasunera eramateaz ari gara».

Greba Feminista

«Greba Feminista Orokorra izan dugu 2023ko azaroaren 30ean. Mugimendu feministaren lidergoarekin eta Euzkalk Herriko gehiengo sindi-



kalaren babesarekin, 1.500 langile batzorde baino gehiago batu dira grebara, hezkuntzan, garraioan eta komunikabideetan erantzun handia izan du eta, batez ere, historiako lehen Greba Feminista Orokorra egin dugu Euskal Herrian». Horixe, gertaera.

Talaia Feministaren arabera, «historikoa» izan zen greba, eta mugimendu feministak zituen helburuak betetzuten. «Zaintza langileen antolaketa sendotu eta zabaldu da eta zaintza langile kontsideratuak ez ziren horiek –amak, emazteak, emakumeak, eta, oro har, lan ordaindugabea egiten dutenak– eskubiderik gabeko langile moduan ulertu eta ikusaraztea lortu da. Sindikalismo feminista eta mugimendu feministaren arteko elkarlanean sakondu da eta negoziatorako eskakizun oso zehatzak aurkeztu dira interlokutore ekonomiko, politiko eta sozialen aurrean, greba

prozesuan adostutako 'Herri Akordioa' aurrera eramateko. Horrez gain, Zaintza Sistema Publiko Komunitarioaren proposamen politikoa hedatu eta zabaldu da».

Urrats garrantzitsuak eman ziren joan den azaroaren 30eko grebarekin, nahiz eta erresistentziak ere izan ziren. «Erresistentziak hamaika izan dira, bai prozesuan eta baita egunean bertan ere, gizonek ez-zaintzaile eta borrokaren subjektu izatearen pribilegioari uko egin nahi izan ez diotelako askotan; eta baita ere, zaintza bihurtzen ari den negozioari uko egin nahi izan ez diotelako administrazio eta instituzio publiko askok». Trabak traba, mugimendu feminista indartuta atera zen.

Bizitza garestitzea

«Murgilduta gauden prekari-zazio eta pobretze prozesuaren testuinguruan, bizitzaren

garestitzeak egoera larriagotzen du, emakumeok izanik, besteak beste, kaltetuenak. Arrazoiak ezagutzen ditugu: baliabide material gutxiago daude emakumeen esku; enegarren krisi honi aurre egiteko pisua emakumeen bizkar uzten da; ikusezinak diren eremu pribatuetan, etxetan, geratzen da krisiari aurre egiteko ardura eta krisiari aurre egiteko hartutako erabaki politiko eta ekonomikoak ez dira berdin iristen emakumeengana». Egungo errealitatea garbi jasotzen du txostenak. Gainera, bizitzaren garestitze prozesua burujabetza feministaren klabeen «atzerapauso» gisa irakurtzen du. «Mekanismo sistemikoak zalantzan jartzen ez dituen biziraupen-logika oraindik nagusi den bitartean, badirudi txinparta-sentsazio bat zabalitzen dela eta, horri esker, mobilizazio handiak aurreikus daitezkeela. Hartara, trantsizio feministaren bidean urra-

tsak egiteko beharrezko ikusten da merkatu kapitalisten mendekotasuna haustea eta horretarako desmerkantilizazio eta desfamiliarizazio prozesu bikoitza bultzatzearen aldeko apustua egiten da».

Euskararen kontra

2021etik, bai EAEn eta bai Nafarroan areagotuz joan dira euskara biziberritzea helburu duten politiken kontrako sententziak. Euskararen kontrako oldarraldia harrotuta dabil. Horren aurrean, joan den azaroan 70.000 lagun batu ziren Bilbon Euskalgintzaren Kontseiluak deituta. Deitzaileen artean, mugimendu feministako hainbat eragile eta kide izan ziren.

Talaiaren txostenak jasotzen duenez, «euskara ikasteko bide eta autobide guztiak ireki behar dira urgenteki: doakoa, unibertsala eta masiboa izan behar du euskalduntzeak. Eta horretarako behar diren plangintzak egin eta baliabide guztiak guztien esku jarri behar dira. Orain artean, Euskal Herrian, euskalduntze politika liberalak egin dira: nagusiki administrazio publikoko langileei lan liberazioak eskainiz euskara doan ikasteko, eta gaitzerekoek, merkatuaren legera, ordainduta ikasi behar dute, horretarako aukera baderen. Politika klasista bihurtzen da. Eskubide

Talaia Feminista sortzeko bidean topaketa asko izan dira, ordu askotako hausnarketak. Irudian, horietako bat, Donostian.
Jon URBE | FOKU

bat pribilegio bihurtu da, beste behin».

Borroka feministak aingura bat ikusten du euskaran eta lurraldean. «Euskarak herri bat ematen du, lur bat, komunitate bat gainontzeko borroka emantzipatzaileek sus-traiak bota ditzaten».

Rubiales, Lopez, PPDA

«2023ak hiru izen ezagun izan ditu; hiru erasotzaile ezagun; nahiz eta erasotzaileak ez diren hiru bakarrik izan. Hiru gertaera hauek, ordea, aukera ematen digute gure bizitzak zeharkatzen dituen indarkeria matxistaz hitz egiteko», jaso du txostenak.

Rubialesek Futboleko Munduko Kopan jokalaria bati emandako muxu behartuak, Gernikan urte luzez saskibaloitaldeko entrenatzaile izandako Mario Lopezek egindako sexu-eraso jarraituak eta Ipar Euskal Herrian ezaguna den Patrick Poivre d'Arvor, PPDA gisa ezaguna, kazetari frantses ezagunak egindako erasoek zeresana eman dute 2023an.

«Mugimendu Feministaren lanketari eta gogoetei esker, asko ikasi eta aurreratu dugu indarkeria matxistaren ulerkeran. Izendatu egin ditugu pairatzen ditugun indarkeria guztiak, seinalatu egin ditugu, eta salatu; eta honek izugarritzko garrantzia dauka. Indarkeriaren ulerkera honek

politizazio bat ekarri du, mar-ko teoriko berri bat, indarkeria matxista sistemaren mui-
nean kokatzen duena. Jada ez da sekula izanen puntualki gertatzen den zerbait, ez da berriz izanen emakume batzuei gertatzen zaien zerbait, ez da izanen pertzepzio kon-tu bat», zehaztu du Talaiak.

Abaiaren debekua

«Ipar Euskal Herrian zein Frantziar estatuan, Frantses gobernuak abai (soinekoa

Indarkeria matxistaren
gaia ere jarri du mahai
gainean Talaia
Feministak. Beheko
irudian, Gernikan
izandako manifestazio
bat.

Aritz LOIOLA | FOKU

arabieraz) erabiltzearen de-
bekua finkatu eta orokortu
zuen 2023 ikasturtean hez-
kuntza sistema publikoan.
Abai ez da adierazpen erli-
jiosoa duen jantzia, bedui-
noen jantzi tradizionala da,
esanahi kulturala duena, be-
raz. Abai debekatzea mul-
sulmanen eta arabiarren es-
tigmatizazioa sortzen duen
erabakia da». Gertaera ho-
rretatik abiatu du gogoeta
Talaiak bere txostenean.

Gaiak ertz dezente dituela
onartuta, Talaia Feminista-

ren ustez «abaiaren debekua
arrazakeria, diskriminazioa
eta estigmatizazioa sortzen
dituen politikaren adibidea
izaki, emakumeengan in-
paktu kaltegarri zuzena du.
Alta, bizi dugun mundu glo-
balizatu honetan gero eta
ugariagoak dira Euskal Her-
rian ere beren kultura eta
identitate erlijiosoa modu
publikoan bizi nahiko luke-
ten komunitateak. Honek
gogoeta eskatzen digu, jen-
dartearen, instituzioetan eta
feminismoan bertan».

Sistemikoa

2022. urtean lehen urratsak
egin zituenetik, Talaiak garbi
izan du euskal feminismoak
sistemikoa den estrategia
bat eskaini behar duela. Ber-
tako partaide den Kizkitza
Gil De San Vicenteren hitze-
tan, «sistemikoa den zapal-
kuntza bati sistemikoa den
erantzuna eskaini behar
zaio. Esparru kulturaletik,
sozialetik, politikotik, insti-
tuzionaletik, komunikabi-
deetatik... Sistemikoa den es-
trategia bat eskaintzeko
eragiletza feminista trans-
bertsala behar da, jendarte
esparru guztietan emango
dena. Talaiak horri erantzun-
ten dio».

Hori da, beraz, Talaia Femi-
nista, urrutira begiratu eta
ortzi-mugan euskal estatu fe-
minista bat imajinatzen duen
begirada kolektiboa.





Fernando TREBOL UNZUE
Psikologian doktorea

Garunaren elikatze kontzientea

Garunaren funtzionamendu kontzienterako zer edo zer aurreratu genuen aurreko idatzian: beste garaietan, naturari lotuago bizitzean, errazago jabetzen ginen gure buruan gertatzen zenaz, gure gorputz biologikoan, alegia; zer esanik ez psikobiologiaren ikuspegitik.

Gorputzarentzat, eta bereziki garunarentzat, glia-zelulak oso garrantzitsuak dira, eta zelula horiek mantentzeaz eta areagotzeaz hitz egitera natorkizue. Luteolina onuragarria da zelula glialentzat. Ikerketa baten arabera, luteolinak zelula glialak babesten ditu hantura neuronaletik eta erradikal askeen ondorioetatik. Luteolina ugari duten elikagaiak hauek dira: ezkaia, perrexila, piperra, kamamila eta propolia. Errutinan aberatsak diren elikagaiak ere garrantzitsutzat jo daitezke antioxidatzaileak eta hanturaren aurkako polifenolak dituztelako. Horiek garrantzitsuak izan daitezke neurodegenerazioaren aurkako babesean edo baliagarriak garuneko baldintza inflamatorioen modulazioan. Adibidez: alforfoia, zainzuriak, pagoda zuhaitzaren gari sarrazenoaren haziak, frutak eta loreak. Fruta eta fruitu oskoldunak (bereziki laranja koloreko fruta zitrikoak, pomeloa, limoia eta lima), sagarra eta duraznoa, baiak (masustak, ahabiak eta chokeberry-a)...

Beste aukera bat azido ferulikoan aberatsak diren elikagaiena da, frutetan eta barazkietan (tomatea, arto gozoa eta arroz-salbatua) aurkitzen den fitokimikoa baita. Azido horrek ondorio terapeutiko ugari ditu hainbat gaixotasunen aurka, hala nola minbiziaren, diabetesaren, gaixotasunardiobaskularren eta neurodegeneratiboen aurrezaintzarako.

Garunaren eremuan gaudela, neurogliaz ere hitz egin behar da; neuronak bere lekuan mantentzen dituen eta behar bezala funtzionatzen laguntzen dien zeluletako edozein da. Oligodendroitoak, astrozitoak, mikroglia eta zelula endimarioak neurogliaren zelula-motak dira.

Gorputza azidoa den neurrian, azidotzea areagotzen dute (estres egoerak, triste jartzea...) pH azidoa duten elikagaiek: alkohola, kafea, azukrea, haragi gorria, esnea, gatza, findutako irina, elikagai industrialak, gurinak, freskagarriak, tabakoa,

botikak, aldeztatik kozinatutako eta ontziratutako elikagaiak. Gorputzaren osasuna kalteku eta gaixotasunak pairatzeko atea zabaltzen dute, eta hori dena odolera igarotakoan, garunerako bidean jartzen da; garuna kolesterolez osatutako eremua da, zeina garunean ematen diren seinaleen transmisiorako ezinbestekoa den.

Serotoninaren errezeptoreekin interakzioa sor dezake, eta ez dugu ahaztu behar serotoninak zein balio garrantzitsua duen: emozioen kontrolarekin eta aldartearekin oso lotuta dagoen neurotransmisorea da, nahiz eta beste funtzio batzuk ere betetzen dituen:

- Gosea erregulatzen du, asetasun-sentsazioa eraginez.
- Gorputzeko tenperatura kontrolatzen du.
- Sexu-gogoa erregulatzen du.
- Jarduera motorra, pertzepzioa eta funtzio kognitiboa kontrolatzen ditu.
- Beste neurotransmisore batzuekin batera -dopamina eta noradrenalina-, antsietatea, beldurra, larritasuna eta agresibitatea gidatzen dituzten mekanismoetan oinarritzen da.
- Hormona batzuen jariatzea erregulatzen du, hala nola melatoninarena; proteina horren funtzio askoren artean erritmo zirkadianoak eta loa erregulatzeko.
- Eginkizuna du hezur-egitura eratzeko eta mantentzeko.
- Sistema baskularrean inplikaturik dago.
- Zelulen zatiketa eragiten du.

Garunaren erabileran kontziente izan gaitzen, zelulen funtzionamendu zuzena ezinbestekoa da, eta horretan, odolaren jarioa inplikaturik dago. Miraririk ez dago, baina gure garunaren elikatze kontziente bat izan behar dugu, elikagaien aldetik noski, baina bizipen jatorrez, osasuntsuz eta emozio egokiz kudeatuta. Hona hemen bost gomendio garunaren elikatze osasuntsu baterako: ibili naturan, eguzkia hartu, elikadura ekologikoa eta osasuntsua izan, ez izan beldurrik, eta, neurri handi batean, sare sozial eta teknologietatik deskonektatu (mugikor, TV, sare sozialak). Hau bai dela garuna ideologikoki elikatzea, kontzientzia haren funtzionamenduan oinarritzen bada. •



Elikagaien sailkapena, haien pH azidoaren arabera. GETTY

{ koaderno } **Xabier IZAGA**

Normaltasunaren alde, denek ala, hobe, inork ez

Kultura-elementu huts batean mintzatzen naiz eta elementu hori baliatuta idazten ari naiz, oraindik halakotzat jo ahal izateko goiz den arren. Edonola ere, uste dut euskaldunok ez genukeela elementu kultural huts bat normalizatu behar. Nahikoa dugula hizkuntza bat, ederra bezain zatarra.

Eguesibarko Udalak euskarazko ekitaldi gutxi antolatzen ditu, bestela hizkuntza hau ulertzen ez duteneko diskriminatzea litzatekeelako, alkateak azaldu zuenez. Eta ekitaldi edo jarduera horiek dirua balio dute. Hori da arazoa, nonbait. Baina jarduerak edo ekitaldiak gaztelaniaz (batez) ere egiten dira, eta horiek ere ordaindu beharra dago. Orduan, arazoa ez da jarduera horiek ordaindu behar izatea, euskara baizik.

Udalerri horretako zinegotzi batek argudio identitarioa eman zuen Korrikari sosik ez emateko: euskara “gorrotoarekin identifikatzen dugu”. Alkateak hizkuntza normalean ez ezik, gorrotoarekin identifikatzen den hizkuntzan ere hitz egiten du, edo badaki, baina ez ditu gogoko euskarazko jarduerak.

Zinegotziak euskararen beste zama-bekatu-erru bat nabarmendu zuen: «Gure arteko ezberdintasunak areagotzen ditu». Euskara normalizatu nahi izatea normaltasunetik kanpoko anomalia da. Oraindik asko falta dela dio euskara “kultura-elementu huts gisa ikusi ahal izateko”. Kontuz, ez dio kultura-elementu hutsa izango dela, baizik eta batek daki zenbat denbora (baina asko) barru halakotzat jo ahal izango dela.

Normala da norberak eta norberaren komunitateak gaztelaniaz egitea, eta batzuen normaltasunean normala da, era berean, besteei gaztelaniaz eginaraztea. Normaltasun horretan normala da euskara gehienez ere elementu kultural hutsa izatea edo, areago, elementu kultural hustzat jo ahal izatea.

Pertsona bat, edo hizkuntza bat, bere kasa ez hiltzea normaltasuna etetea izan daiteke, eta jendetasun falta nabarmena. Edo pribilegioa, Orkoieneen behinik behin. Eta soluzioa ez da denek hizkuntza biak jakitea bermatzen duen hezkuntza eredu jartzea, denek hizkuntza bat jakitea bermatzen duena jartzea baizik. Denek jakitea barik, inork ez jakitea.

Baina nik ez dut nahi euskara elementu kultural hutsa izatea. Ez orain, ez zinegotziak hartarako baimena ematen duenean ere. Normaltasunaren kalteko nahiago dut. Berdintasunaren eta, beraz, demokraziaren aurkakoa, eta alderantziz.

Baina demokratek ere hautsi izan dute normaltasuna. Frankismoan, antifrankistek; Frantzia okupatuan, erresistentziak; izan ere, Frantzia okupatuan eta bes-

Baina nik ez dut nahi euskara elementu kultural hutsa izatea. Ez orain, ez zinegotziak hartarako baimena ematen duenean ere. Normaltasunaren kalteko nahiago dut euskara

tean laster ohartu ziren nazien aurka egin ezean ez zegoela zertan beldurrik izan. Eta alemanak han izan ziren bitartean, erresistentziak eteten zuen normaltasuna. Gero, tropa aliatuak Parisera sartu orduko, frantses gehienak gutxienik erresistentziaren aldeko eta normaltasun haren aurkako amorratuak ziren. Espainiar gehienak trantsizio eredu garrian frankismoaren aurkakoak ziren bezala. Ohikoa zen (eta da oraindik) entzutea «nik ere lasterka egin nuen grisen aurretik», bat-batean milioika espainiar tximistaren pare korrika irudikatze moduan. Frantsesezko lokuzioa baliatuta, *les fascistes espagnols couraient comme un basque devant la Police franquiste.* •

Liburu bat. Erakusketa bat. Lanaren ikuskerak, langileen memoria hizpide duen erakusketa, edo liburua. Irudi eta testu bidez langileen eta lanaren inguruko hainbat gairi buruz hausnartzen duten artista batzuen ekarpenak bildu dituen saiakera bisuala. Argitalpen bat, salgai dagoena baina ZAS Kultur aretoan bi hilabetez doan ikus daitekeena.

Berez, karpeta bat da, zenbait liburuxka edo koaderno biltzen dituena, eta erakusketa karpeta horretako liburu edo koadernoen «destolesteko posibletako bat» da.

Lanaren inguruko hausnarketa egiteko baliatu dituzten irudien eta testuen egileak Arte ederretako irakasleak eta ikertzaileak dira, edo bertan doktore tesia egiten ari direnak: Arturo/fito Rodriguez, Arantza Lauzirika, Natxo Rodriguez, Igor Rezola, Edurne Gonzalez, Camilo Torres, Mawatres, Maria Muriedas, Iñaki Billalabeitia eta Eider Eguren. Erakusketako lan batzuk bina-ka eginak dira; beste batzuk, berriz, egile bakarrarenak.

Arantza Lauzirika artean eta ikus-entzunezko baliabideetan doktorea eta EHUko Arte Ederren Fakultateko Arte eta Teknologia Saileko irakasle titularra eta ikertzailea da. Berak aurkeztu zuen erakusketa.

Azaldu zuenez, aspaldi heldu zioten Langile Memoria proiektuari. Hainbat alderdi eta emaitza dituen proiektua da, eta erakusketa hau emaitza horietako bat da, argitalpen bat egiteko ideiatik abiatuta sortua. Testuaz gainera, langileen inguruan hitz egiteko tresna izatea nahi zuten, eurek erabiltzen dakiten erremintatetik, arte plastikoetatik, hain



LANGILE MEMORIA: IKUSPEGI ARTISTIKO BAT

Lanaren eta desagertu ez baina eraldatu den klase baten inguruko hausnarketa, oroimena eta aintzatespena

 **KULTURA** / Xabier IZAGA

«Langile Memoria» saiakera bisuala da. Ikuspegi garaikide batetik, langileekin eta lanarekin lotutako gaiak buruz irudi eta testuen bidez hausnartzen duten artista batzuen ekarpenak bildu dituzte erakusketa bihurtzeko daitekeen argitalpen batean.

zuzen. Argitalpen hori destolesteko modukoa izatea nahi zuten, aldi berean erakusketa bat izan zedin. Eta horixe da erakusketa, liburu baten edukia hormetan zabalduta.

GAI BEREKO HAINBAT ALDERDI

Galdera batetik abiatu zituzten beren gogoetak: zergatik dago langile klasea desagertu den pertzepzioa, klase batekoa izatearen sententzia falta? Eta lanaren inguruan gizarte ga-

raikidean aurkitzen diren paradoxoi erreparatu zieten; esate baterako, Silicon Valeyn ezartzen hasi ziren enpresa eredu berria, artista bohemioa, independentea, nahi duenean lan egiten duenaren eredu; han, langileak seme-alabak edo txakurra eraman zitzaizkien lanera, kafea doan ematen zioten, futbolina zeukan... ahalik denbora gehien eman zezan lanean; autoesplotazio modu hura, alegia.

Lanarekin lotutako hainbat ideia jorratu dituzte: sabotaje, borroka, erreibindikazio eta protesta eskubidea; aisiarekin zerikusia duen guztia, nagitasun eskubidea barne: lanik egin nahi ez izateko eskubidea, Igor Rezolak aztertu duena; fabrikaren eraldaketa eta lan formatu berriak, Natxo Rodriguez eta Lauzirikak jorratu duten gaia; paisaia industriaren aldaketa, zerbitzu paisaia bihurtu izana, alegia; lanarekin lotutako oroimena; Mawatres-ek egindako «monumentua»...

Kontaketa gurutzatu bat osatu dute, eta euren ikerketaren abiapuntuan, XX. mendeko lantegi eta meategietako langileak irudikatzerakoan arteak eta hedabideek erabiltzen zituzten kodeak daude, «lanari eta langile-izaerari buruz XXI. mendean erabiltzen den terminologiaren bilakaera ere aztertuz», liburuaren eta, beraz, erakusketaren sarreran diotenez. «Historikoki produktibotzat eta soldatapekotzat hartzen ziren langile haiekin hasita (gainbalioaren sortzaileak) eta etxeko sistema osoari eusten ziotenengana iritsiz (hau da, ustez produktiboa ez zen lana egiten zutenengana iritsiz); kontuan hartuta azken horiek langileen atsedena, elikadura eta mantenua ahalbidetzen zituztela, ekoizpen-katerra egunero itzul zitezten. Saiakera bisual bat, besteak beste borroka, erreibindikazioa, lanaren irudikapena, nagitasunerako eskubidea, elkarrekin eraketa, lanaren inguruko komunitatea eta bizitza jorratzen dituena».

Halaber, Rezolak Lauzirikaren zuzendaritzapean egindako doktore tesirako landu zuen ideiatik abiatuta, zenbait testu idatzi dituzte biek koa-

dernoetako batean, artearen eremuan eta gizartean zer-nolako bilakaera izan den aztertzen dutenak.

HAINBAT GAI, HAINBAT ATAL

Rezolaren eta Lauzirikaren azterketa mendeetan erlijioarekin eta moralarekin lotutako jardueratzat jotzen zen. Hasieran lana duintasun eta aberastasun espiritualaren iturritzat jotzea Kapitalismoaren erai-kuntzan eta haren garapena bultzatzeko orduan ezinbestekoa izan zen. Gero, Adam Smith-ek lanari funtzio erabat instrumentala eman zion eta helburua aberastasuna sortzea zen. Gizarte burges modernoan ekoizpen eredu berriak sortu ziren, eta Smith-ek berak onartu zituen haien «alde ilunak». Ez dira falta Marxen azterketak... gaur egungo ekin-tzailtza, ekonomia sortzailea, *co-working* espazioa eta antzeko kontzeptuetara arte. Eta ondorio paradoxiko bat: azkenean, artistak ere langileak dira; sortu diren zenbait eredu, hala nola nor bere nagusia izanda askeagoa dela sinetsarazi nahi duenak, uste dute prekarizazio modu bat baino ez direla horiek; artearen munduan sarri bizi izan baitute eta gaur egun lan eremu guztietan ere gertatzen baita.

“Begiratzea lan egitea da” esaldia agertzen den atalean, zenbait irudirekin batera, “Internazionala” kantua dago irakurgai, ‘lan’ hitza osatzen duten letrak ezabatuta: «Zutik _urrea_ kondenatu zaren __gi_e triste_, _ekez ginen e_k_rga_atu(...)».

Atal berean, Harun Farocki zinemagileak, “Desconfiar de las imágenes” saiakeran Robert Bressonen “Un condamné à mort s’est échappé” (Heriotza zigorra duen batek ihes

Ikerketaren abiapuntuan, XX. mendeko lantegi eta meategietako langileak irudikatzerakoan arteak eta hedabideek erabiltzen zituzten kodeak daude

Lanarekin lotutako hainbat ideia jorratu dituzte: sabotaje, borroka, erreibindikazio eta protesta eskubidea; aisiarekin zerikusia duen guztia, nagitasun eskubidea barne

egin du) filmari buruz idatzi zuen iruzkina: «Bere zeldako objektuak iheserako tresna bihurtzen dituen preso bat agertzen da. Koilara baten heldulekua zorroztu du tresna gisa erabiltzeko, oheko malgukiak desmuntatu eta elastiko eta maindire hautsien zerrendekin txirikordatu ditu soka bat egiteko. Inoiz ez da horrelako filmik egin lanari eta haren esanahiari buruz».

Beste atal batek greba du gai: «Nola ikusarazi behar da greba zineman? Nola uztartu

zinema grebarekiko? Nola irudikatu klase-kontzientzia irudikapenaren kontzientzia gisa?». Eta greba gai duten zenbait filmen gaineko iruzkin bana agertzen du. Hauek dira film horiek: Jean Luc Godarden “Tout va bien” (Dena ondo doa), Herbert J. Bibermanen “The Salt of the Earth” (Lurraren gatz), Ken Loachen “Bread and Roses” (Ogia eta Arrosak), Vsévolod Pudovkinen “Mama” (Ama), Colectivo de Cine de Madrid taldeak egin zuen “Vitoria 3 de marzo” (Gasteiz martxoak 3) dokumentala, Joaquín Jordàren “Numax presenta” (Numaxek aurkeztuta) eta Sergei M. Eisensteinen “Stachka” (Greba).

Zaintzari eskainitako atalean, alfabetikoki ordenatutako hamaika hitzez osatutako poema ageri da: «Ama cama abrazo/ baño baba ohea/ chupar cuerpo domestico/ dormir lo besarkatu/ egon estar etxean/ (...) kulunka implicar

jolasaldi/ lugar kezka llanto/ mujer mamífera madre/ nacer rozar nahi/ ñimiño ñoño ñabardura/ (...) unir batu lekua/ vulva valor vegetal/ w generación sándwich/ xahutu nortasun xarmant/ yacer geldi tabarra». Eta haren azpian, iruntzia izan litekeena.

IKUS-ENTZUNEZKOA

Otsailaren 8an, dokumental bat proiektatu zuten ZAS Kulturaren, «labur zirriborro bat», Lauzirikaren hitzetan: “Langile Oroipena. 1. kapituluua”. Ikus-entzunezko lan hori aretoan ikusgai dagoen Langile Memoria erakusketan parte hartu duten artisten lanetik sortu da.


Glosategi baten antzera, XX. mendean langileek Euskal Herriko fabrika eta meategietan erabilitako hiztegiaren terminoak, ideiak eta definizioak bildutakoan abiatu zuten. Sektoraren gainbeheraren edo desagertu izanaren ondorioz, aurrerapen teknologikoen edo berrantolaketa ekonomikoaren ondorioz desagertu diren kontzeptuak, objektuak, zereginak eta egoerak, eguneroko bizitzako elementuak deskribatzen zituzten adierazpenak aztertzen ditu.

Lehenengo kapitulu horrek lan denborak ditu ardatz: garai batean fabrikako adar hotsak markatzen zituen herri baten orduak, lanera sartzeko, bazkalordua, aisialdiaren hasiera; edo lan txandekin zerikusia duen terminologia, denborarekin eta laneko denborarekin lotura duena.

Artisten hasierako ideia zenbait kapitulu egitea zen, betiere lan munduarekin zerikusia izango zutenak, batez ere desagertzen doan terminologia hori jasoz: «Larunbat ‘ingelesa’, larunbat osoan lan egitea, ondoren lanaldi erdian...».

Natxo Rodríguez eta Arantza Lauzirika erakusketaren inaugurazioan.
Endika PORTILLO | FOKU





Horrelako bideo gehiago egiten jarraitzeko asmoa zuten, zaintza eta afektu lana gai hartuta, «ustez produktiboa ez zen lana, baina hura gabe gizartea ezin zen sostengatu», zehaztu du Lauzirikak. Hau da, erakusketan agertzen diren atalak ikus-entzunezko formatuan banakatzea zen artisten asmoa, horretarako lan gehiago egiten jarraitzea, baina, momentuz, herenegun ikusi zen dokumentala lehenengo kapitulua baino ez da. Hala ere, ez dute baztertu lan horrekin jarraitzea, «astia dugunean eta lanak uzten digunean», dio Lauzirikak barrez, «gustuz egiten dugun eta geure burua esplotatzen dugun beste lan mota hori».

AINZATESPENA

“Langile Memoria”, ikerketa eta erakusketa interesgarria izateaz gainera, bada, halaber, langile klasearen aintzatespena agertzeko modua ere: «Era horretan, egitura ekonomikoa – baina batez ere aberastasun sozial eta kulturala– konfiguratu duten pertsonen lanaren balioa nabarmendu nahi dugu;

izan ere, lan horren gainean egituratu da gure tokiko izaera, eta beraren gainean definitu da iragana orainaren eta geroaren eraikuntzaren abiapuntutzat hartu duen eta berarekin sentsibilizatuta dagoen herri honen historia. Langile klasearen barnean gurasoengandik seme-alabengana egiten den transmisio kulturala/politiko gogoratu nahi dugu, ahaztutako eta iraindutako klase hori aintzatetsi nahi dugu, eta klase eta gizabanako gisa eraiki gaituen eta eraikitzen gaituen guztiaren balioa nabarmendu.

Langile klasearen deuseztapen eta absentiak hitz egiten da, eta klase gisa desagertu ez

«Begiratzea lan egitea da».
Behean, aisiaren hainbat alderdi.
Endika PORTILLO FOKU

«Langile klasean gurasoengandik seme-alabengana egiten den transmisio kulturala/politiko gogoratu nahi dugu, ahaztutako eta iraindutako klase hori aintzatetsi»

«Klase gisa desagertu ez den arren, desagertu dira identitate zentzua ematen zioten elementuak, komunitate baten eta klase baten partaidetza sentimendua ematen ziotenak»

den arren (eraldatu egin da), desagertu dira identitate-zentzua ematen zioten elementuak, komunitate baten eta klase baten partaidetza-sentimendua ematen ziotenak».

Langile klasearen aintzatespen hori nabarmena da erakusketa osoan, baita monumentu bat ere, edo, hobeto esateko, monumenturik gabeko omenaldia:

«Idulki bat bistaratze-espazio bat da, alturan eta garrantziaren bidez gorputz baten irudikapena goraiatzeko eta nabarmentzeko; normalean, zutik edo zaldi gainean dagoen gizon baten irudikapena izaten da. (...) Oinarria, idulkia edo zutoina –ematen zaion izena zeinahi delarik ere– egiteko erabili den materiala ez da izango omendutakoa egiteko erabili den berbera. Material hori noblea, ederra, estetiko eta iraunkorra izango da, jakina, baina beti markatu behar ditu desberdintasunak. Ogasuna guztiok gara, eta gizarte-klaseak ez dira existitzen, baina idulkia marmol, granito, zementu eta harriz jarriko didazu, eta garailea gainean daraman zaldia brontzez

galdatuko didazu, mesedez. Irudikapena kendu zaion monumentu bati zutoina gertzen zaio, oinarria, podiuma, idulkia, euskarria..., eta hori identifikatu ditzakegu omenduarekin lan egin eta borrokatu zirenak, eta hargatik edo haren eskuetan hil zirenak. Brontzez jaiotzen den baina gero oinarria soilik geratzen den monumentu bat oinarria omentzen duen monumentu bat da. Horretan inplikaturako pertsona guztiak. Protagonistarik gabeko forma hegemoniko bat. Testuinguru eta esparru sozialaren euskarri den forma bat. Aurpegirik eta gorputzik gabe gatazka arnasten duen irudikapen bat, eboluzio moduan irtenbide formal bat eskaintzen duena.

Idulkia besterik geratu ez zaion monumentu bat eszenatoki bat da. Gauzak gertatzen ari diren leku bat. Elkarri eragiteko espazioa, anonimoen lekua, iristea ahalbidetzen duena eta ukitu, jo, mailukatu edo musukatu daitekeena; bertan idatz daiteke eta tu egin dakioko.

Heroririk gabeko idulki bat WORKING CLASS da».



LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

Mafalda, oraindik ez

**Miren AZKARATE
BADIOLA**

Zer gertatuko litzateke Lurra planeta bat-batean geratuko balitz? Galdera hori lerroburutzat zuen albiste bat irakurri nuen duela egun batzuk eta, hasiera batean kasu zipitzik egin ez nion arren, gutxira albiste berri bilatzea erabaki nuen. Badakizue, ni ere askotan albisteak mugikorrean irakurtzen, behatza gora eta gora ibiltzen naizen pertsona horietakoa naiz, maiz lerroburua irakurrita hortxe geratzen dena eta hurrengora pasatzen dena apenas denborarik hartu gabe irakurtzeko. Bai, kazetari bezala beti gorro-

to izan dudana zera hori bihurtu naiz ni ere. Baina, aldi honetan, denbora hartu eta ordu batzuetara albiste goitik behera irakurri nuen.

Besterik gabe kuriositate handia sortu zidan galderak, aitortu behar dut inoiz burutik pasa ere egin ez zaidan aukera bat zela hori. Meteorito batek lehertuko zuela gure planeta, edo azken aldian indarra hartu duen munduaren akaberan pentsatu izan dut maiz, hau da, gizakiok sunsituko dugula gure planeta apurka-apurka (edo ez hain poliki), gure bizitokia eta espezieak. Baina mundua geratuz gero –Ma-

faldak esaten zuen bezala: «Geratu dadila mundua, ni jaitsi egingo naiz-eta»–, denak eta dena airean aterako zenik, niri ezta okurritu ere! Bada, zientifikoen arabera, gerta daitekeen zerbait da.

Ez nuke nahi berehala izaterik, bizitza ederra baita eta nire seme-alabak txikiak baitira oraindik, baina aitortu behar dut, norberaren heriotzarekin bezala, azkar eta sufritu gabe bada, aukera hau onenetarikoa iruditzen zaidala. Mafaldari aurka egitea ez dut gustuko, baina, oraingoan, ez dakit ba mundua gertzerik nahi dudana. •

Zertarako ikusi eta entzun nahi da biktimia?

Bortxaketa bat jasan zuen pertsona bati entzun berri diot barruan pausatu zaidan gogeta bat. Bortizkeriaz bortxatu eta jipoitu zuten, eta parke ilun batean abandonatu, segur aski hilda zegoelakoan. Handik bizirik atera zenean, inoiz baino grina handiagoa omen zuen bizitzeko, lagunak besarkatzeko, etxekoekin gozatzeko, paseoan ateratzeko, dantzatzeko... bizitza ospatzeko behar ikaragarria sentitzen omen zuen. Ingurukoek ez zuten asko ulertzen, epaitua ere sentitu zen, bortxaketarena akaso ez zela “hainbesterako” izan pentsatuko zuten askok, “shock” egoeran zegoela beste batzuk...

Berak, aldiz, oso garbi zeukan zer gertatzen zitzaion: heriotzaren hatsa hain gertu sumatu zuen, hil egingo zela hain

garbi ikusi zuen, non bizitza zuzentzeko behar basatia sentitzen baitzuen.

Horrela azalduta, erabat arrazoizkoa eta logikoa dirudi.

Baina, onar dezagun, normalean biktimak guk espero bezala jokatzeko duen errazago kokatzen gara. «Birrinduta dago, gaizki, nola egongo da, bada? Ni ere halaxe egongo nintzateke». Dena bere tokian. Puzzleko pieza bakoitza bere tokian. Baina pieza bakoitzak non egon behar duen ez da berezkoa, naturala, ikasia da. Eta biktimari zorrotz begiratu behar hori ere ondo ikasia eta barneratua daukagu.

Indarkeria matxistaren biktimia izan denari nondik eta nola begiratzen diogu? Ba al dugu nahikoa patxada eta adore begietara begiratzeko, esan nahi dituenak entzuteko, isildu nahi dituenak errespetatzeko?

Aste honetan Dani Alves futbolariaren kontrako epaiketa hasi da, emakume bat bortxatu izana leporatuta. Biktimaren irudia eta ahotsa garden eta garbi jasotzeko nahiak bazterrak nahastu ditu. Kazetari zenbait haserre agertu dira epaileak biktimaren pribatutasuna zaintzeko hartu dituen neurriak direla eta. Baina, zertarako ikusi eta entzun nahi da biktimia? Nahikoa triste dagoela ziurtatzeko? Bere aurpegian lo gutxi egiten duela igartzeko? Behar baino alaiago ez dagoela neurtzeko? Bizitzeko gogo gehiegi ez duela ikusteko?

Arazoa ez da biktimia, arazoa erasotzailea da. Biktimia izateko ez da aparteko gaitasunik behar. Ondo frogatuta dago edozein emakume izan daitekeela indarkeria matxistaren biktimia. Bada garaia horrekin konturatzeko eta indarrak behar diren norabidean inbertitzeko. •

**Amagoia MUJICA
TELLERIA**

infraganti

GORKA CINTERO

Hiru hamarkada daramatza jostun bezala lanean Gorka Cinterok. Getariako sortzailea gorpuztu duen Alberto San Juan aktorearentzat coach lanak egin ditu Aitor Arregik, Jose Mari Goenagak eta Jon Garañok zuzendutako "Cristobal Balenciaga" ekoizpenean. Eta berdin, bertan parte hartu duten figuranteentzat.

Kolore guztietako errotulagailuak, oihalak piloan jarrita. Eta soineko baten zirriborroa, arkatzez eta koloretako margoez egiten ari dena. Hauxe Gorka Cinteroren (Donostia, 1978) Groseko tailerrean mahai gainak erakusten duen irudia. Hormetara itsatsitako astoetan, soinekoak. Kolore bizidunak.

Badu eskarmentua Gorka Cinterok jostun bezala enkar-guz jantziak –ezkontzarako edo okasio berezietarako soi-

nekoak batik bat– egiten. "Cristobal Balenciaga" seriean bizi-tako esperientzia konta diezagun etorri gara bere lantokira. Ezustean jaso zuen Aitor Arregi, Jose Mari Goenaga eta Jon Garañoren proposamena, Alberto San Juanen eta figuranteen *coach* lanak egitea.

Oihartzuna ari da izaten Disney + Plataformaren ekoizpenean. Bere aletxoak jarri du bertan Cinterok. Batetik, akzioa definitzen. «Eszena antolatu behar duzu koreografia baten gisa, sinesgarria izan dadin. Pertsona bat ezin da etengabe

akzio bera egiten eduki hizketan ari den bitartean, esaterako. Guk hitz egiten dugu josten ari garenean, baina ekintzan aurrera goaz bitartean. Gogoan dut Winona Riderren eszena bat 'La edad de la inocencia' filmean. Bastidorea du eskuan. Jostorratza beti leku berean dauka, eta ni detaile horrek atera egiten nau filmetik. Horrelako detaileak zaindu egin dira seriean».

Bestetik, aktoreei puntadak nola eman azaltzen. «Gauzak nola egin gomendioak ematen nizkien. Botoi bat josi behar baduzu, nola egin jakin behar duzu. Ez da baleari arpoia sartzea!», dio barrez. «Mahuka bat askatzeko, gurizeak ez dira haria ebakitzeko bezala hartzen. Urteen poderioz hartzen dituzun postura eta keinuak dira». Xehetasun txikiak ezjakinarentzat, baina

ezinbestekoak ofizioa dute- nentzat. «Bada zerbait asko tematzeraz eraman ninduen. Hasteko, titarea –mahaian duen bat hartu du–. Goi jostintzako jostunik ez dago titaririk gabe josten duenik.»

Ez baita batere erraza jostorratzik eskuan apenas hartu duen norbaitek jostintzaren sekretuak ezagutzen dituenaren plantak egitea. Are gutxiago une askotan kamerak lehen planoak ateratzen dizkienean eskuei.

Iruritan grabatutako sekuentzian egin zuen Cinterok bere lehen parte-hartzea. «Josteko makinak benetan funtziona zezan eskatu nien. Ez da nahikoa makinaren zarata, funtzionatzen duela ikusi egin behar da. Grabaketan borroka handietako bat ebakitzeko zuten guraizeak lortzea izan zen. 'Polita geratzen da', esaten zidaten, 'bai, baina ez du moztu', erantzuten nien. 1950, 1960 eta 1970eko atrezzoak izatearen eragina da. Atrezzoko kideak ez dio horri garrantzi handirik emango, baina ikusleak sinetsi egin behar du».

1930etik 1970eko hamarkadara dagoen tarte hartzen du serieak, beraz, gaur egun desagertu diren pauso edo molde ugari zituen prozesuak. Honek beste zailtasun bat gehitu dio proiektuari.

«ARITZEA, EZ DAGO BESTERIK»

Josten ikasteak denbora eskatzen du. «15 urte nituen josten ikasten hasi nintzenean eta 45 urte ditut orain. Eta oraindik seguru badagoela egin ezin dudana gauzarik. Ez da zortzi hilabetetan ere ikasten. Une jakin batzuetan dakizunaren plantak egin ditzakezu, betiere aurrez entsaiatutako posturak eginez. 'Hau horrela heldu, atzean eskua jarri...', esaten

Gorka Cintero, Donostiako Gros auzoan duen espazioan. Tailerra eta saltokia ditu bertan. Gorka RUBIO | FOKU



nien. Senez ez zaizu egoki ateratzen. Eskuz egin beharreko ofizio denak bezala, aritzea, ez dago besterik».

Eta Cinterok ez zuen ezertarako astirik izan. «Albertori sekuentziak grabatu ahala erakutsi nion. Amaieran gauza batzuk oso ondo ateratzen zitzaizkion. Ni ikusiz eta nola egin behar zuen entzunez, primeran ateratzen zitzaizkion hainbat ekintza. Seguru badaudela fisikoki Balenciagaren antza handiagoa duten hiruzpatalau aktore, baina ez zara gogoratzen Alberto San Juan dela», azaldu du.

San Juanek berak esana da Cristobal Balenciaga gorpuzteak buruz zein fisikoki bere gaitasunak gainditu dituela. «Zoragarria da, sugeen xarmagarria da. Oso giro ona jartzen du grabaketan. Era berean, oso esanekoa da, nirekin hala izan da, behintzat. Oso edukatua, oso eskertua zegoen eman ahal niezaiokeen laguntzarengatik. Uneren batean blokeatu egin zen hain erraza ez zela izango ikustean. *Coach* batek lasaitasuna ematen dio, 'ondo dago' esanez. Hasieran erreparoa ematen zidan eszena gerarazteak, baina gero ikusi nuen, zerbait gaizki bazegoen, hori zela egin behar nuena. Aktoreekin oro har oso esperientzia ona izan dut, ez diot aurpegi txarrik ikusi inori. Ez dakit beste proiektuetan gauza bera den, zalantzak ditut», dio jostunak.

«Pertsonaia sortzen eta hizkuntzatan nolabait trebatzen zentratu zen Alberto –euskaraz eta frantsesez ere egin du seriean, gaztelaniaz gain–. Baina ez zion batere garrantzirik eman josteari hasieran. Seriearen arduradunek ere joskintza bigarren planoan utzi zuten. Zer gertatzen da? Balenciagari buruzkoa dela. Ez da auzoko

jostuna. Balenciagak oso ondo josten zuen. Eta ez hori bakarrik: bere ofizialen joste-portaerak bere irudira eta antzera aldatzen zituen. Paroxismora iristen zen. Ez da nahikoa itxura ematea. Harago joan beharra daukazu», adierazi du.

Balenciagaz zer esan? «Bere garaian handiena zen. Eta gaur ere izugarritzko kultua pizten du. Bere siluetak, lineak, oiha-lak... ez dira egungoak; haratago, modernoak dira. Niretzat garairik interesgarriena adinekoa zenekoa da. 70 urte inguru zituen erretiroa hartu zue-nean. Eta azken unera arte oso aurrerakoia zen, esperimentala. Ez zen konformatzen ohikoarekin, emaitza ona ematen zionarekin. Bere lanean dena ematen zuen, eta pertsonaia- ren alturan egon behar duzu».

ARGIAK ZEIN ITZALAK

Sortzaile handiaren argiak bakarrik ez, itzalak ere iradokitzen ditu ekoizpenak. Izan bazituen.

Badu meritua Cinteroren us-tez lanbidea zein bizitza pribatua hainbeste babestu zituen pertsona ardatz duen seriea egiteak. «Nola egin erakargarri? Hain itxia zen pertsona baten inguruko seriea egitea arrakasta dela esango nuke. Kontuan izan bizi izan zuen une historikoa, gaya izanda. Au-Pair bezala Parisen lan egindako emakume bat ezagutu nuen. Balenciagaren bizilaguna zen. Balenciagaren bikotea, Wladzio Jaworowski aipatu zidan berak 2007-2008an. 'Oso guapoia zen. Beti elkarrekin ikusten nituen, biak bizi ziren gure ondoko etxean', esan zidan».

Oso urriak dira argitara emandako Balenciagaren elkarrizketak. Kazetariak idatzitako profilak ziren Cinteroren iritzian, elkarrizketak baino.

«Eszena antolatu behar duzu koreografia baten gisa, sinesgarria izan dadin. Pertsona bat ezin da etengabe akzio bera egiten eduki hizketan ari den bitartean, esaterako».

«Albertori [San Juan] sekuentziak grabatu ahala erakutsi nion. Amaieran gauza batzuk oso ondo ateratzen zitzaizkion, ni ikusiz eta nola egin behar zuen entzunez».

«Hiruzpatalau gertaera hartu eta elkarrizketa muntatzen duzu. Balenciaga ezagutu zuten zenbat pertsona daude egun bizirik? Ez asko. Bada kontxu bitxia. 'Nire amona Balenciagaren bezeroa zen', 'Nire izekok Balenciagarentzat egin zuen lana', esanez datoz hain-

«Cristobal Balenciaga» seriea beldurti ikusi zuela aitortu du Cinterok, baina pozik agertu da emaitzarekin. Gorka RUBIO | FOKU



bat nire tailerrera. Kontuak ateratzen hasi eta, ze adin zuen zure izekok garai hartan? 8 urte?, denborak ez datoz bat. 1898an jaio zen Balenciaga eta ez zen 109 urte bizi izan!», esan du, barrez.

Gustura dago emaitzarekin. «Beldur pixka batekin joan nintzen seriea ikustera eta izugarri gustatu zait», aitortu du. Hiru zuzendariez galdetzean, hauen perfekzio nahi nekagarria nabarmendu du. «Nork bere ikuskera du. Goenaga estetika zalea da, Garaño akziora bideratuta dago gehiago eta Arregik oso ikuspegi pertsonala dauka; hirurekin primeran moldatu naiz», dio.

Jantzigintzaz arduratu den lantaldea ez da nolana hikoia izan. «2.000-3.000 figurante jantzea ikaragarria da! Look osoa prestatu behar duzu, goitik behera. Kontuan izan publiko zabalari zuzenduta dagoela seriea. Ez zinemazaleei bakarrik, moda gustuko dutenei ere bai. Eta azken hauek aztertu egiten dute ikusten dutena, eta gero kritikatu egingo zaituzte. Oso ondo zainduta egon behar du. Eta zuzendariek arduraz hartu dute gaia, nahiz berandu ikusi duten agian bere garrantzia».

Bina Daigelerrek –ibilbide artistiko nabarmenaren jabe da alemaniarra– sortu ditu diseinuak. Jantzigintza alorrean 30 pertsona inguru aritu dira bere aginduetara. «Aktoreak jantzen dituztenak, figuranteen arropaz arduratzen direnak, grabaketan dauden bizpahiru jostunak beharrezko konponketak egiten... Pepo Ruiz Doradok eta Charo Diegok antolatu dituzte talde denak. Charo, gasteiztarra, bere eskuin eskua da. Zoragarria da, oso langilea. Elkarrekin egiten dute lan proiektu dene-

tan. Arduradun batek lana ondo antolatzen dion norbait aurkitzen badu, ezin du bera gabe moldatu. Nolako lana egin duten! Ez dira zortzi orduko lanaldiak izan, ondo dakit hori. Laguntzaileak ere badaude, zinemagintzan hanka bat sartu nahi dutenak».

Madrilgo tailerrean jantzien erreplikak egiteaz arduratu zirenak gehitu behar zaizkie. Beste 8-9 kide, 2022ko Aste Santuaren aurretik ekin ziotenak lanari. Cinterorentzat apirilean hasi zen abentura. Ederra bezain neketsua. Disney + plataformak dezente atzeratu du estreinaldia, orain ikusi baitu argia serieak. Orduan jasozuen zuzendarien deia. Bizipen bete izan zen, lana gehituz joan zitzaion. Figurate lanak egiteraino. «Julen Maiz jostunaren bitartez iritsi ziren nigana zuzendariak. Grabaketa uztailan hasi zen eta nirekin harremanetan apirilean jarri ziren. Alberto San Juan gaizak nola egin irakatsiko zion norbaiten bila ari ziren. Hasieran lauzpabost saio egin behar nituen, Oiartzungo Zinealdean. Lehen planoetan Albertok josi zezala nahi zuten, ez zedila itxurakeria hutsa izan. Azkenean, lau hilabeteko lana izan zen, lanez lepo nabilen garaian, gainera», dio.

Ander Sistiaga ekoizleak hala esan zion: «'Gran Hermano' bezalakoa da, baina 200 pertsonekin». «Ekoizleen lana izugarri neketsua da. Hainbeste fronte dituzte irekita... Dior etxearen baimena lortzea bere arropa erabili ahal izateko, esaterako, nahiz erreplikak diren. Eta hauek Parisko Caraco izeneko dendan egin behar dira, ez beste inon. Aldiz, Chanel etxeak oihalak eta guzti utzi zituen. Eta Saint Laurent etxeari da-



Bere eskuek jostorrazekin eta oihalekin duten trebezia transmititzen saiatu da Cintero, detaile txikiak zaintzen saiatuz.
Gorka RUBIO | FOKU

gokionez, egun Balenciagaren etxekoa denak, ez zuen bere saltokian grabatzea baimendu. Serieak oso intrahistoria barregarria dauka. Momentuan, noski, ez du batere graziaz eginen», kontatu du. Getarian, Donostian eta Parisen grabatu da, besteak beste. Zortea izan dute zuzendariak. «Parisko dendaren irudiak benetakoak dira, etxeak orduantxe eraberritu zituen-eta saloiak goi joskintzako paseak egiteko. Ez dute modernoa egin, garai bateko itxura eman nahi izan diote». Getariar jostunak nola hartuko zukeen se-

ria? «Ileak lastuko zizkion. Seguru nago. Ez seriearen kontzeptuak, baina inork bere bizitzaz seriea egiteak legena eragingo zion. Grazia ere egingo zion eta barre algarak egingo zituen. Hau dena ustea da, noski. Estetikoki asko gustatuko litzaioke, seriea bikaina da». Arte zuzendaritza –«ikusgarria»– nabarmendu du. Aurrekontu neurtuz egina, gainera. «Baditu ahalbideak, baina ez amerikar serie batek edo BBCren ekoizpen batek izan ditzakeenak. 12 milioi euro inguruko aurrekontua izan du nik dakidanaren arabera, eta sei kapituluko ekoizpen handia egiteko justukoa da. Javier Agirre da argazkilaritza zuzendaria».

Oreka. «Teknikoki errealista eta perfektua denaren eta zuzendariak bilatzen dutenaren edo haien buruan ikusi dutenaren arteko oreka izan da zailena. Eurek ohartarazi ninduten, 'egun jakin batzuetan zure aholkuak ez ditugu konfiantza izango'. Jakinararen gai-

nean zaude errealitatean ez dela horrela egiten eta kosta egiten zaizu ondo dagoela esatea. Kameran ondo ematen du, baina inork ez luke modu horretan egingo. Baina aitorzen dut polita dela».

Cinterorentzat, azken emaitza ikusteaz gain, ederra da lantaldearen partaide izatearen sentipena. «Proiektu batek ilusioa pizten duenean, nabaritu egiten da. Horren parte izatea oso polita da. Eta betiko geratzen zaizu», esan du.

Figurazio lanak ere egin ditu hiru ataletan. «Bibotedun gizon baten bila zebiltzan eta nik hala nuen garai hartan. Parisko jostundegi arduraduna bihurtu nintzen, Sebastian. Ia ohartzarako han ikusi nuen nire burua! Tupea buruan, bibotea eta bizarra eginda. 'Oso serio zaude', esaten zidaten zuzendariak. Ni leher eginda nengoan! Ez zen antzetzeta izan, nire lana egitea izan zen, grabatzen ninduten bitartean».

Xole ARAMENDI ALKORTA

«Diorren erreplikak Parisko Caraco dendan egin behar izan dira, Chanel etxeak oihalak eta guzti utzi zituen eta Saint Laurent etxeak ez zuen bere saltokian grabatzea baimendu»

«Teknikoki errealista eta perfektua denaren eta zuzendariak bilatzen dutenaren edo haien buruan ikusi dutenaren arteko oreka izan da zailena»



Miren BERMEJO LLOPIS

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria, UPV/EHU

Alferrik ez galtzeko app-ak: Berreskuratu janaria klik batekin!

Teknologiak gure eguneroko ohiturak moldatzen dituen garai batean, elikagaiak alferrik galtzearen aurkako aplikazioak agertu dira. *Too Good To Go* bezalako adibideek zeharo aldatu dute jatetxeetako, hoteletako eta dendetako gehiegizko elikagaiak atzitzeko aukera, ingurumen-inpaktuaz arduratzen diren kontsumitzaileentzat irtenbide berritzaile eta eskuragarria eskainiz.

Plataforma teknologiko horiek zubi bat eskaintzen dute iraungitze-data oso hurbil duten elikagaien eta erabiltzaileen eskariaren artean, honela, alferrikako galera murriztuz eta erabiltzaileentzat erakargarriak diren prezioetan produktuak eskainiz. Honela, ahoa jaki gozoezin betetzen duzun bitartean, ingurumenari mesede egiten diozu janari horrek zaborretan bukatu ez dezan eta hondakinek uzten duten ingurumen-aztarna txikitu dadin.

Teknologiaren eta iraunkortasunaren arteko erlazioa agerian geratzen da aplikazio horien muinean. Kontsumitzaileei bestela baztertuak izango liratekeen elikagaiak eskuratzeko aukera ematean, kontsumo arduratsua sustatzen dute. Gainera, plataforma horiek zuzenean laguntzen dute Nazioa Batuen Erakundearen Garapen Jasangarrirako Helburuetan, bereziki 12. GJHan (Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsuak), elikagaien galera arintzen dutelako eta kontsumo-praktika iraunkorragoak sustatzen dituztelako. Aplikazio horien bitartez elikadura-hondakinek duten errealitatea erakutsi daiteke, hainbat eta hainbat jatetxe, supermerkatu eta beste agertzen baitira ia une oro beraien soberakinak eskainiz. Honela, erabiltzaileak hondakinak murriztearen garrantziaz sentsibilizatu eta arazoaren tamainari buruz hezi daitezkeelarik.

Aplikazio hauek elikagaiak alferrik galtzea murrizteko irtenbide berritzaileak eskaintzeaz aparte, erronkak

ere badituzte. Kezketako bat kontsumismoa sustatzean datza; izan ere, behar baino gehiago erostera bultza daitezke erabiltzaileak, produktuak prezio merkeetan eskuratu ahal izango direlako. Gainera, kostu baxuko elikagaien etengabe-ko eskaintzarekin, produktuetatik hautemandako balioa murrizteko aukera dago, eta horrek ondorioak izan ditzake kontsumitzaileek eskaintzen diren elikagaien kalitateari buruz duten pertzepzioan. Aplikazio hauen beste desabantaila bat mendekotasun teknologikoan datza. Zerbitzu horiek ohikoagoak bihurtu ahala, erabiltzaileak teknologian gehiegi oinarritzeko arriskua dago, elikagaiak prezio merkeetan lortzeko, hauek eskuratzeko modu tradizionalagoak eta orekatuagoak alde batera utzita.


Beraz, batetik, elikagaien kudeaketan etorkizun iraunkorragoa lortzeko aukera izan daitezke aplikazio hauek, eta hondakinak murrizteko duten garrantzia agertu dezakete, baina bestetik, horien eraginkortasuna kontsumo-ohiturak barneratzeko moduaren arabera da neurri handi batean. Funtsezkoa da erabiltzaileek beren zeregina ulertzea, prezio merkeko produktuak eroste hutsetik harago, kontsumo arduratsua sustatzeko erantzukizuna aitortuz. •



Elikagaiak alferrik ez galtzeko aplikazio gero eta gehiago daude. GETTY

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



BILDUMA PARTIKULARRA

LOUIS BEGUERIEREN MAULEKO ESPARTIN FABRIKAKO LANGILEAK

XIX. mendetik aurrera, Maule espartinak ekoizten zituzten euskal herri nagusietako bat bihurtu zen. 1.500 langilek baino gehiagok, gehienak emakumeak, sektore horretan lan egiten zuten. Langile gutxi zegoenez, horietako asko Euskal Herriko beste herri batzuetatik etortzen ziren eta "Ainarak" izenez ezagutzen ziren. Sektore honetako enpresarik aipagarrienetako bi Louis Beguerierena eta Pascal Cherberorena ziren. XIX. mende amaierako prentsan enpresa hauen publizitate iragarki ugari argitaratzen ziren, baita Louis Begueriek Mauleko udal politikan izan zuen parte-hartzeari buruzko berriak ere. Bordelen eta Parisen argitaratutako merkataritza-urtekariak Beguerieko abarketak eta sandaliak esportatzeko arduradunak iragartzen zituzten, batez ere Ameriketara. 1894ko martxoaren 5ean, tokiko prentsak Beguerie fabrikako pabiloi baten sutearen berri eman zuen, zeina Mauleko bizilagunen eta suhiltzaileen esku-hartzeari esker itzali zen. Prentsaren arabera, galarak bi milioi libera baino gehiagokoak izan ziren. XIX. mendearen amaieran egindako egile ezezagunaren irudian, Louis Beguerieren Mauleko fabrikako langileak ikus daitezke argazkilariarentzat posatzen, batez ere haurrak eta emakumeak.



ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,
entzun egiten
dugulako.

naiz:irratia

naiz:irratia

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /
Bortziriak 103.1 / Leitza 95.1

irratia.naiz.eus

